ERLANTZ GIMENEZ GARCIA (1. guztira 1)
Administrazio Orokorreko Teknikaria
Sinaduraren data: 29/05/2024
HASH: 78c79a98238f515fcecaa989011bb531

Espediente-zk.	Prozedura
1479/2024	Kontratazioak

ZERBITZU KONTRATUAREN EZAUGARRIEN KOADROA

ESKOLA ZINEMA PROGRAMA PROGRAMATZEA, KUDEATZEA ETA EBALUATZEA

Erregulazio harmonizatuko kontratua:	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen tramitazioa	☒ Arrunta, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdizkoa, ☐ Aurretiazkoa
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLko 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLko 159.6 art.)

A. ESLEITZEKO AHALMENA

1. **Esleitzeko ahalmena:** Amorebieta-Etxanoko Udala
2. **Kontratazio organoa:** Amorebieta-Etxanoko Udaleko Alkatea (SPKLko 2. Xedapen Gehigarria)
3. **Kontratuaren arduraduna:**
   Euskara Teknikaria (RUI)
4. **Kontratazio organoaren helbidea / telefonoa / faxa / e-posta:**
   Herriko plaza z.g.
   94 630 00 02. Faxa: 94 630 01 65.
   kontratazioa@amorebieta.eus
5. **Kontratatzailearen profila:**
   https://amorebieta-etxano.eus/eu/udala/antolakuntza/kontratazioa/

B. KONTRATUAREN XEDEA

1. Zerbitzuaren deskribapena

Kontratu honen xedea da Eskola Zinema programa programatzea, kudeatzea eta ebaluatzea ikasturtean zehar.

Aipatutako programa herriko eskola hauetan emango da: Larrea Herri ikastetxea, Andra Mari ikastola, El Carmelo ikastetxea, Karmengo Ama ikastetxea, IES Urritxe BHI eta Lauaxeta Ikastola. Zerbitzua 4-14 urte bitarteko ume eta nerabeei zuzenduta dago (Haur Hezkuntzako 2. ziklo, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa).

Horren helburu nagusia da Amorebieta-Etxanoko ume eta nerabeek, eskola orduetan, euskarazko filmak ikusi eta gelan lantzea, euskararen presentzia areagotzeko, sustatzeko eta

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 53

ulermena lantzeko.

Horren helburu nagusiak helburu zehatzagoak barne hartzen ditu egitasmoaren bidez:

- Zinema baliatuz euskaraz gozatzea, eta hizkuntza ikasteko motibazioa eta jarrera positiboak indartzea.
- Zinemaren bidez haur eta gazteen trebetasunak eta sormen eta kritika ahalmenak garatzea.
- Haur eta gaztetxoen artean euskararen erabilera eta ezagutza bultzatzea.
- Adinaren eta filmaren arabera hainbat balio lantzea: adiskidetasuna, familia, talde-lana, elkarbizitza, maitasuna, autoestimua, irudimena, eta abar.

2. Bete beharreko beharrizanak

Amorebieta-Etxanoko udalak 2024ko otsailaren 23an egindako osoko Bilkuran Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) (Esp. zk.: 716-2024) onartu zuen.

Hori dela eta, asistentzia teknikoa kontratatu behar du ondoren azaltzen diren neurriak betetzeko:

Amorebieta-Etxanoko eskola publikoan zein ikastetxe pribatuetan D ereduko (euskara hutsezko) irakaskuntza baino ez dago, eta eskolarizazio prozesu guztia, hasiera-hasieratik, euskara hutsean baino ez da. Hala ere, gazteen artean hizkuntzaren erabilera sustatzea ezinbestekoa da eta horregatik Ikasleek euskara normaltasunez erabil dezaten hizkuntza bizia ikasi eta landu behar dute, motibazioz eta modu atseginean. Proiektuak euskararen ahozkotasunean sakontzeko eta ikasleen euskararen ahozkotasun maila sendotzeko eta hobetzeko proposamena jasoko du, ohiko bide formaletatik kanpo, bertsolaritza baliatuz.

Horrez gain, Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, Irakaskuntzari dagokion 2.2.1 atalean jasota dago: 2.2.1. Ikasleen ahozko eta idatzizko euskara gaitasuna hobetzeko ekimenak sustatu. “Bertsolaritzaren bitartez ahozkotasuna lantzeko “Mundu bat bertso” programa aurrera eraman”.

Amorebieta-Etxanoko Udalak ez dauka giza-baliabiderik ezta baliabide materialik ere horrelako programa bati heltzeko; beraz, hori beteko bada, ezinbestekoa da enpresa espezializatu bat kontratatzea..

3. Kodifikazioa

CPV deskribapena: 80000000-4 Irakaskuntza eta prestakuntza zerbitzuak
CPV osagarria: 80310000-0 Gazteriarentzat irakaskuntza zerbitzuak
92100000-2 Zinema eta bideo zerbitzuak

4. Loteak

Lotetan zatituta: ☐ BAI ☒ EZ

Lotetan ez zatitzeko justifikazioa: Kontratua ez da lotetan zatitu behar kontratuaren izaera ikusita, honako arrazoi hauengatik:

Kontratua lotetan ez zatitzeak SPKLren 99.3 b) artikuluan aurreikusitako arrazoiari erantzuten dio; izan ere, lotetan ez zatitzeko baliozko arrazoitzat jotzen du honako hau: «Kontratuaren objektuan

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 53

jasotako prestazioak modu independentean egiteak zaildu egingo luke kontratuaren objektuaren exekuzio egokia, ikuspuntu teknikotik; edo kontratua behar bezala egikaritzeko arriskua kontratuaren objektuaren izaeratik etortzea, prestazioen exekuzioa koordinatzeko beharra baitakar, eta hori ezinezkoa izan liteke, lotetan banatuta egoteagatik eta kontratista desberdinek egikaritzeagatik»..

5. Aldaketak onartzea

Onartzeko baldintzak eta aldatu daitezkeen elementuak edo dauden aukerak: EZ

C. KONTRATUAREN PREZIOA

1. Lizitazioaren aurrekontua

Lizitazio-aurrekontua	7.500,00 € / urtean
Prezioa	7.500,00 € / urtean
BEZetik salbuetsita (azaroaren 9ko 7/1994 BEZari buruzko Foru Arauko 20. art.)	0,00 € / urtean

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 100.2 artikuluan aurreikusitakorako, aurrekontu hori honela banatzen da, estimazio bat eginda:

ZUZENEKO KOSTUAK	
Langileak	85%
Zuzeneko kostuak, guztira	**85%**
ZEHARKAKO KOSTUAK	
Materialak eta bestelako gastuak	9%
Mozkin industriala	6%
Zeharkako kostuak, guztira	**15%**

Enpresa lizitatzaileek zenbateko hori hobetu ahal izango dute, eta ez dira onartuko lizitazio-oinarri horiek gainditzen dituzten proposamenak.

2. Balio zenbatetsia

Kontratuaren balio zenbatetsia, barne hartuta hasierako iraupena, egon daitezkeen luzapenak eta pleguetan aurreikusitako aldaketak, 22.500 eurokoa da (BEZ gabe).

3. Prezioa zehazteko sistema

☒ Oroharreko zenbatekoa.
☐ Oroharreko zenbatekoa prezio itxiarekin (aldaketarik gabe aldakuntzak izan arren)
☐ Unitateko prezioak
☐ Tarifak

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 53

☐ Beste sistema bat:

4. Urterokoak (BEZ barne, BEZetik salbuetsia dagoenean izan ezik) eta aurrekontu partidari aplikatzea.

Kontratuaren urteroko aurrekontuak eta gastuaren aurrekontuaren aplikazioa hauek dira:

2024. urtea, 3351 22704 partida: 2.500,00 euro.
2025. urtea, 3351 22704 partida: 7.500,00 euro.
2026. urtea, 3351 22704 partida: 5.000,00 euro.

5. Prezioak berrikustea

Ez dagokio.

6. Kanpoko funtsekin finantzatzea

EZ
Funts mota:
Kofinantzaketaren %:
Finantzatzen duen erakundearen logotipoa

7. Ordaintzeko modua

Ordainketa SPKLren 198.4 artikuluan aurreikusitako epean egingo da, lana egin dela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu eta horrekin ados egon ondoren. Dokumentu hori honako mugarri hauen arabera emango da:

a) % 33,33 urtarrilean, lehen eskola-hiruhilekoa amaitu ondoren.
b) % 66,67 dagokion urteko ekainean, jarduera amaitu eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako 2. txostena aurkeztu ondoren.

8. Konturako ordainketak

EZ.

D. IRAUPENA ETA BETEARAZTEKO EPEA

1. Iraupena, guztira

Zerbitzu-kontratua indarrean egongo da kontratua sinatu eta hurrengo egun baliodunetik, 2026ko ekainaren 30era arte. Jardueraren hasiera 2024ko urriaren 1ean izatea aurreikusten da.

2. Epe partzialak

EZ

3. Luzapena

Kontratua urtero luzatu ahal izango da hasierako iraupena amaitzean, gehienez ere beste urtebetez.

4. Berme aldia

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 53

Hiru Hilabete.

5. Kontratua betearazteko lekua

Amorebieta-Etxano

E. BERMEAK

1. Behin betiko bermea

Adjudikazioaren zenbatekoaren %5

2. Berme osagarria

Ez

F. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA ETA TEKNIKO EDO PROFESIONALA

1. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

- Amaitutako azken hiru urteetan urteko negozio bolumenik handiena izandako urtea, gutxienez 7.500 € izango da. Merkataritza Erregistroan utzitako kontuekin egiaztatuko da.

2. Kaudimen tekniko edo profesionala

Kontratuan eskatutako kaudimena ondokoa da:

1. Eskatzen denaren antzeko zerbitzuak egin izana egiaztatatzea, urtean 5.000 euro edo gehiago (metatuta) azken 3 urteetako onenean. Gauzatze egokiari buruzko ziurtagiriekin eskaintzarik onena lortzen duen lizitatzaileak egiaztatuko du.

2. Ondoko baldintzak betetzen dituzten langileak dituztela egiaztatzea:

    a) C1 ziurtagiriaren edo baliokidearen pareko euskara maila, ikasketak ez baditu euskaraz egin (Europako Erreferentzia Markora egokitzeko 48/2009 Dekretua).
    b) 26/2015 Legeak aldatutako Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, adjudikaziodun enpresek adingabeekin lan egingo duten langile guztien Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko dituzte.

Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Enpresa sortu berriek, hau da, 5 urte baino gutxiagoko antzinatasuna dutenek, ez dute beren kaudimena egiaztatu beharrik izango aurreko paragrafoan ezarritako bitartekoen bidez, langileen ezaugarriak salbuetsita; hala ere, kaudimena honela frogatu ahal izango dute:

- Kontratuan parte hartuko duten teknikarien edo unitate teknikoen aipamena, enpresakoak izan ala ez, bereziki kalitate-kontrolaz arduratzen direnena.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 53

- Enpresaren urteko batez besteko plantillari eta azken hiru urteetako zuzendaritza-taldekideen kopuruari buruzko adierazpena, dagozkion justifikazio-agiriekin batera, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean.

A. GAIKUNTZA PROFESIONALA ☐ BAI ☒ **EZ**

B. ENPRESA-SAILKAPENA: ☐ Eska daiteke / ☒ Ezin da eskatu

G. LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Erakunde lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. **Artxibo elektronikoa – 1/A. gutun-azala: Dokumentazio administratiboa**

   - Europako Kontratazio Dokumentua

2. **Artxibo elektronikoa – 2/B. gutun-azala: Balio-judizioen menpeko irizpideei buruzko dokumentazioa**

   - Balio-judizioen menpeko irizpideei buruzko dokumentazioa, Ezaugarrien Koadroaren J.1. idatz-zatian jasotakoari jarraikiz.

3. **Artxibo elektronikoa – 3/C. gutun-azala: Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideen eskaintzako dokumentazioa**

   - Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideei eskainitako dokumentazioa, Ezaugarrien Koadroaren J.1. idatz-zatian jasotakoari jarraikiz.

H. ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

1. Eskaintzak aurkezteko epea

Kontratatzailearen profilean ezarritakoa, zeina ez den izango 15 egun baino gutxiagokoa, argitalpen egunetik hasita.

2. Tokia

Eskaintzak lizitazio elektronikorako Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman dagoen tresnaren bidez aurkeztuko dira, lizitazioaren iragarkian eskaintzak aurkezteko ezarritako eguna eta ordua heldu orduko.

3. Eskaintzen aurkezpen elektronikoa

☒ BAI/ ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://www.contratacion.euskadi.eus

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 53

I. KONTRATAZIO MAHAIA

- Presidentea: Amorebieta-Etxanoko Udaleko lehen alkateordea edo haren ordezkoa.
- Mahaikideak:
  - Udaleko idazkaria edo haren ordezkoa
  - Udaleko kontu-hartzailea edo haren ordezkoa
  - Euskara teknikaria edo haren ordezkoa
- Idazkaria: Administrazio Orokorreko teknikaria.

J. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1. Esleitzeko irizpideak

BALIO JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpidea	Puntuazioa
1. Programazioa. Ikasturte akademikoan zehar garatu beharreko programa eta proiektuaren filosofia zehaztua, proiektuaren helburuak, helburu hezitzaileak eta balioetan heztea sustatzen dutenak. Ikasturtean zehar emango diren filmen zerrenda bat aurkeztea baloratuko da, sustatzen diren balioen deskribapen zehatzarekin: • Gaitasun kritikoa. • Gogoeta egiteko eta eztabaidarako gaitasuna. • Integrazioa eta berdintasuna • Ingurumenarekiko errespetua. Proposamenen kalitatea eta kontratu honekin bete beharreko beharrizanetarako gaitasuna baloratuko da.	25 puntu
2.- Metodologia eta jarduerak. Emango diren filmetara egokitutako hezkuntza-materiala aurkeztea baloratuko da, ondokoak zehaztuz: • Landu beharreko trebetasun linguistikoak. • Gogoeta eta eztabaidarako jarduerak • Jarduera ebaluatzeko materiala (datuak biltzeko fitxa, baloraziorako galdetegia, …) Proposamenen kalitatea eta administrazioak kontratu honi dagokionez dituen beharrak betetzeko egokitasuna ere baloratuko da.	20 puntu
3.- Genero-ikuspegia txertatzea: proiektuaren edukian eta garapenean genero-ikuspegia txertatzea baloratuko da.	5 puntu

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 53

B gutun-azalean gordetako dokumentazio tekniko guztiak gehienez ere 10 orrialde izango ditu, DIN A-4 inprimatze tamainan, letraren tamaina gutxienez 10ekoa Microsoft Word edo baliokidean. Ezarritako gehieneko hori gainditzen duten eskaintzak -0,5 punturekin zigortuko dira gainditutako orrialde bakoitzeko, gehienez -5 punturaino.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHAR DEN PUNTUAZIOAREN GUTXIENEKO ATALASEA: SPKLak 146.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, balorazio orokorrean onartuak izateko, automatikoki kuantifika ezin daitezkeen irizpideetan eskaintzaileek gutxieneko puntuazioaren atalasea lortzea eskatuko da. **Ildo horri jarraiki, kontratazio-mahaiak ez ditu kontuan hartuko 25 puntu lortzen ez duten eskaintzak.**

FORMULAZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpidea	Puntuazioa
1. ESKAINTZA EKONOMIKOA: **45 puntu** Puntuak formula honen arabera banatuko dira: $PO = MaxP * \frac{Ob}{Ol}$ Horrela: PO = Eskaintzaren puntuak MaxP = Puntuak gehienez Ob = Eskaintzarik txikiena Ol = Balioetsi beharreko eskaintza * Lizitazioko prezioei dagokienez, hobekuntzarik eskaintzen ez duten eskaintzak 0 punturekin baloratuko dira atal honetan.	**45 puntu**
2. PRESTAKUNTZA Kontratuari atxikitako langileek prestakuntza ikastaroak egitea baloratuko da, zerbitzuaren xede diren alorretan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoez gain. Puntu 1 urteko banakako prestakuntza-ordu bakoitzeko.	**5 puntu**

2. Berdinketa hausteko irizpideak:

Legez ezarritakoak.

3. Ohikoa ez den eran baxuak diren eskaintzak aintzat hartzeko irizpideak:

Ohikoak ez diren edo neurriz kanpokoak diren balioak dituzten eskaintzak, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 85. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako parametro objektiboen arabera hautemango dira.

4. Hautatze-prozesuan jarraitzeko lizitatzaileari eskatzen zaion gutxieneko puntuazioa

Balio-judizioaren menpeko irizpideetan guztizko puntuazioaren % 50 lortu beharko da hautatze-prozesuan jarraitzeko.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 53

K. KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

SOZIALAK

1) Enpresa kontratistak kontratuaren xede den jarduera gauzatuko duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien adierazi beharko du, esleipenduna izanez gero. Kontratua esleitu aurretik adierazi beharko dute hori, eta esleipenaren ebazpenean adierazi beharko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Nolanahi ere, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak sektoreko hitzarmen kolektibotan jasotako baldintzak eta lurraldeetan aplikatzekoak direnak bermatuko ditu.

2) Kontuan izanik neska-mutikoen artean dagoen dibertsitatea, arreta berezia eskainiko zaie behar bereziak dituztenei (arazo sozialak dituztenak, desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala dutenak, jokabide arriskutsuak dituztenak, …).
Proiektuak berdintasun harremanak sustatu ditzan, kontzeptu eta balioetan oinarrituko da, eta diskriminazioa baztertzea sustatuko da, dela sexu identitatearengatik edo sexu orientazioarengatik.

Zeharkako lerro hauek garatzeko, ondokoekin lankidetzan arituko da: Gizarte Zerbitzuak, ikastetxeak, udaltzaingoa, etab.

Horretarako, adjudikaziodun enpresak kontratua gauzatzen hasten denean, memoria bat prestatu beharko du, zeharkako lerro hauek betetzeko hartuko diren neurriak adieraziz.

EKONOMIKOAK/ZERBITZUAREN KALITATEA KONTROLATZEKO

Baldintzen agirietan zehaztutako baldintzetan itundutako zerbitzua ematetik eta indarreko legedia aplikatzetik ondorioztatzen diren betebeharrak gorabehera, erakunde esleipendunak honakoa egin behar du:

- Zerbitzua modu erregular eta jarraituan eman behar du eta inola ere ezin du zerbitzua eten, kontratazio-organoak berariaz hala erabakitzen duenean izan ezik, interes publikoko arrazoi justifikatu bat dela medio.
- Udalak zerbitzua emanez lortu dituen emaitzei buruzko txostena aurkeztu behar du kontratuaren iraunaldia amaitzean, zerbitzuaren prestazioaren emaitzekin; nolanahi ere, toki-administrazioak zerbitzu hori etengabe ikuskatzeko ahalmena izango du.

SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Enpresa kontratistak zerbitzua gauzatzeko bere kargura dauden langileen segurtasuna eta osasuna behar bezala babesten dela bermatu behar du.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan eta aurrekoa garatzen duen 171/2004 Errege Dekretuan ezarritakoa betez, baldintza-agiri honi (IV. eranskina) prebentzio-arloan beharrezkoa den dokumentazioaren zerrenda eta bete beharreko erregistroak erantsi zaizkio, enpresa-jarduerak koordinatzeko prozedura osatzeko, kontratatutako lanak hasi aurretik. Dokumentazio hori betetzeko eta entregatzeko epea bi hilabetekoa izango da, kontratua esleitzen denetik aurrera.

LINGUISTIKOAK

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa ezartzen da baldintza teknikoen agirian ezarritako hizkuntza-baldintzak betetzea, eta, bereziki, zerbitzuari atxikitako pertsonek bete beharreko gutxieneko ezagutza-baldintzei dagozkienak.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 53

Kontratazioa esleitu ondoren, langileren batek hizkuntza-gaitasuna egiaztatuta badu eta haren ordez beste bat egiten bada, azken horrek dagokion hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko du. Gauza bera egingo da subrogazioz kontratatutako langileak ordezten direnean.

BERDINTASUNA

Kontratistak bermatuko du, kontratua gauzatzean, dokumentazioa, publizitatea, irudia edo materialak sexismorik gabe erabiltzen direla, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihesten direla, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatzen direla, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna sustatzen direla.

Kontratistak honako hauetan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu: martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duena, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegua lortzeko aukeran, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, kontratua azkentzean, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolaketan.

L. ZIGOR BEREZIAK

Ez dago horrelakorik.

M. ESLEIPENDUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat izan eta indarrean mantendu beharko du kontratuaren iraunaldian, gutxienez 100.000 eurokoa.

N. KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aurreikusten aldaketarik.

Ñ. AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Adierazi beharko dute ea azpikontratatuko den, baina ez da beharrezkoa izango zenbatekoa eta enpresaren izena eta profila adieraztea: Artxibo elektronikoa – 1. gutun-azala:

Azpikontratazioaren mugak. SPKLan ezarritakoak.

O. SUBROGAZIOA

Ez da aurreikusten.

P. ERREKURTSO BEREZIA

Ez da egokia.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 53

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK ZERBITZUAK KONTRATATU DITZAN PROZEDURA IREKI, IREKI SINPLIFIKATU ETA IREKI OSO SINPLIFIKATUAREN BIDEZ

1. XEDAPEN OROKORRAK 3
- **1.1.** XEDEA ETA LOTEAK 3
- **1.2.** CPV 3
- **1.3.** KONTRATUAREN IRAUPENA 3
- **1.4.** KONTRATUA BETEARAZTEKO LEKUA. 3

2. IZAERA JURIDIKOA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA 4

3. KONTRATAZIO ORGANOA, KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA 5
- **3.1.** KONTRATAZIO ORGANOA 5
- **3.2.** KONTRATUAREN ARDURADUNA 5
- **3.3.** KONTRATATZAILEAREN PROFILA 6

4. AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA, PREZIOAK BERRIKUSTEA, KREDITUA IZATEA. 6
- **4.1.** AURREKONTUA 6
- **4.2.** BALIO ZENBATETSIA 6
- **4.3.** PREZIOAK BERRIKUSTEA 6
- **4.4.** KREDITUA IZATEA 6

5. LIZITATZAILEEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA, ETA PROPOSAMENEN DOKUMENTAZIOA 7
- **5.1.** LIZITATZAILEEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA 7
- **5.2.** PROPOSAMENAK AURKEZTEA 8
- **5.3.** PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA 9
- **5.4.** ENTREGATZEKO TOKIA ETA EPEA 12

6. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK 13

7. KONTRATAZIO MAHAIA 13

8. ADITUEN BATZORDEA 13

9. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA 13
- **9.1.** GUTUN AZALAK EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOAK IREKITZEA 13
- **9.2.** ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA 14
- **9.3.** ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEARI ERREKERIMENDUA 14
- **9.4.** BEHIN BETIKO BERMEA 16
- **9.5.** ADJUDIKAZIOA 17

10. KONTRATUA FORMALIZATZEA. 17
- **10.1.** KONTRATUA FORMALIZATZEA 17
- **10.2.** KONTRATUA FORMALIZATZEKO EPEA 18

11. KONTRATUA BETETZEA ETA KONTRATUA ALDATZEA 19

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 53

11.1. KONTRATUA EGIKARITZEA....19
11.2. LANEN PROGRAMA....20
11.3. ALDAKETAK EGITEA....20
12. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK....20
12.1. LAN ARLOKO, INGURUMEN ARLOKO, DATUEN BABESERAKO ETA JABETZA INTELEKTUALEKO BETEBEHARRAK....20
12.2. EPEAK BETETZEA....27
12.3. SEKRETU PROFESIONALA ETA GARDENTASUNA....27
12.4. ARAU BEREZIAK ENPRESA KONTRATISTAREN LAN KONTRATUDUN LANGILEEI DAGOKIENEZ....29
13. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK LANAK ORDAINTZEA ETA FAKTURAZIOA....30
13.1. ORDAINTZEA....30
13.2. FAKTURAZIOA....30
14. LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA....31
14.1. LAGAPENA....32
14.2. AZPIKONTRATAZIOA....32
15. ZEHAPENAK....33
15.1. ZEHAPENAK APLIKATZEA....33
15.2. FALTA ZIGORGARRIAK....34
15.3. ZEHAPENEN KOPURUA....35
16. KONTRATUA AMAITZEA....36
16.1. KONTRATUA BURUTZEA....36
16.2. EGINDAKO LANEN JABETZA....36
16.3. BERME ALDIA....37
16.4. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA....37
17. ESKUMENAK ETA JURISDIKZIOA....37
17.1. KONTRATAZIO ORGANOAREN ESKUMENAK....37
17.2. JURISDIKZIOA....37
I. ERANSKINA. FORMULEN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN PROPOSAMEN EREDUA....39
II. ERANSKINA: LOTUTAKO ENPRESEN ADIERAZPEN EREDUA....41
III. ERANSKINA: SUBROGATU BEHARREKO LANGILEAK....42
IV. ERANSKINA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO DOKUMENTAZIOAREN ZERRENDA....43

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 53

1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1. XEDEA ETA LOTEAK

Agiri honen helburua eskubide eta betebeharren itun eta baldintza definitzaileak ezartzea da, Kontratuaren Ezaugarrien Taulako B.1) atalak (aurrerantzean, Ezaugarrien Taula) aipatutako zerbitzuen kontratazioan alderdi juridiko, administratibo eta ekonomikoak arautu behar dituztenak.

Kontratu honen bitartez bete beharreko beharrizanak Preskripzio Teknikoen Agirian eta Ezaugarrien Taulako B.2) atalean garatu dira.

Kontratua loteetan banatuta badago, lizitatzaileak lote batean, batzuetan edo guztietan aurkez daitezke, eta lote batean, batzuetan edo guztietan izan daitezke adjudikaziodun, lizitatzaile bakoitzeko lote kopuru gehiena ezarri ezean, parte hartze eta/edo adjudikazio ondorioetarako; kasu horretan, Ezaugarrien Taulako B.4) atalean ezarritakoa beteko da.

Aldaerei dagokienez, Ezaugarrien Taulako B.5) atalean ezarritakoa beteko da.

1.2. CPV

NACE eta CPV kodea agiri honi atxikitako Ezaugarri Taularen B.3) atalean adierazi da.

1.3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen iraupena Ezaugarrien Taulako D.1) atalean adierazi da.

Kontratuaren iraupena zein, hala badagokio, ezar daitezkeen epe partzialak, Ezaugarrien Taularen D.2) atalean finkatuko dira (edo kontratua adjudikatzearen ondorioz sortuko den horretan, adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzarekin bat etorriz); kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen, edo, prozedura ireki oso sinplifikatuan, adjudikazioaren jakinarazpena onartu eta hurrengo egunetik.

Kontratuaren arduradunak kontratua hasteko data zehatza adierazi ahalko du; inguruabar hori espedientean jasota geratu beharko da.

1.4. KONTRATUA BETEARAZTEKO LEKUA.

Kontratua Ezaugarrien Koadroko D.5) apartatuan adierazitako lekuan gauzatuko da.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 53

2. IZAERA JURIDIKOA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Botere adjudikatzailea Amorebieta-Etxanoko Udala da, hain zuzen ere, nortasun juridiko publikoa duen tokiko administrazioaren erakundea.

Halaber, kontratu honek, dagokion helburua dela bide, administrazio izaera dauka.

Kontratua agiri honek arautuko du, kontratuaren lege gisa funtzionatuko du, bi aldeetarako indar loteslearekin, preskripzio teknikoen agiriarekin batera, eta horietan aurreikusi ezin den guztirako azaroaren 8ko 9/2017 Legea izango da aplikagarria, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egin zuena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL), baita gainerako araudi aplikagarria ere.

Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak eta kasuan kasuko kontratuaren Ezaugarrien Taulak zein eranskinek eta gainerako agiriek kontratu izaera izango dute.

Agiri hau eta gainontzeko kontratuko agirien artean bat ez etortzerik egongo balitz, baldintzen agiri hau nagusituko litzateke. Horrez gain, kontratu izaera izango du kontratuaren adjudikazioa lortuko duen eskaintza tekniko eta ekonomikoak, eta, hala badagokio, kontratua formalizatzeko agiriak.

Kontratuen klausulen berri ez izatea, edozein inguruabarretan, edo kontratuaren gainerako dokumentuen berri ez izatea edo itundutakoa gauzatzeko aplikagarriak diren araudi edo jarraibideen berri ez izateak ez du adjudikazioduna salbuesten dagozkion betebeharrak bete behar izatetik.

Ezaugarrien Taularen C.6) atalean ezarritakoaren arabera kontratu honetan Europako finantzaketa existituko balitz, kontratazioa itunaren eta horren arabera finkatutako egintzen xedapenen baldintzapean egon beharko litzateke.

Erregulazio harmonizatuaren eta harmonizatu gabearen (SPKLren 156. art.) mende dagoen prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da zerbitzuen kontratazioa, edo prozedura ireki sinplifikatuaren bitartez (SPKLren 159. art.), edo prozedura ireki oso sinplifikatuaren bitartez (SPKLren 159.6 art.), Ezaugarrien Taulan adieraziko den moduan.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 53

3. KONTRATAZIO ORGANOA, KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA

3.1. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio organoa Ezaugarrien Taulako a.1 atalean identifikatu da.

3.2. KONTRATUAREN ARDURADUNA

SPKLren 62. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratuaren arduraduna Ezaugarrien Taulako A.3) atalean identifikatuko da. Kontratua modu zuzen eta jarraituan koordinatu, ikuskatu, kontrolatu eta jarraipena egiteko ardura izango du, eta adostutako prestazioa zuzen gauzatzea bermatzeko beharrezko jarraibideak ematea.

Horretarako, kontratua betetzean, kontratuaren arduradunak beharrezkotzat jotako nahi beste alditan ikuskatu ahalko ditu zerbitzuak, eta beharrezkotzat jotako informazioa eskatu ahalko du, lana zuzen kontrolatzeko. Helburu horrekin, kontratuaren arduradunak eta bere kolaboratzaileek kontratua beteko den tokietara libreki sartzeko aukera izango dute. Kontratistak, inolako kostu gehigarririk gabe, laguntza profesionala emango dio Udalari azken horrek kontratatutako prestazioaren aprobetxamenduari dagokionez beharrezkotzat jotako informazio edo azalpen bileretan.

Kontratistak kontratuaren arduradunak eskatutako zehaztapen eta dokumentazio oro aurkeztu beharko du kontratua betetzean. Kontratistak edo horren mendeko langileek egindako edo egin gabeko zerbaitek kontratuaren bilakaera egokia zalantzan jarriz gero edo oztopatzen badute, kontratuaren arduradunak neurriak hartzea eskatu ahalko du, adostutakoa zuzen gauzatzea lortzeko edo berrezartzeko.

Kontratistak bere kolaborazioa eskaini beharko dio kontratuaren arduradunari, horri emandako betebeharrak normal betetzeko.

Kontratuaren arduradunak, zerbitzuak modu zuzenean egiten direla zuzendu, kontrolatu, egiaztatu eta zaintze aldera, beharrezkotzat jotako funtzio oro hartuko ditu bere gain kontratistari dagokionez, eta, zehazki, honako hauek:

- Kontratistari zuzenean edo bere mendeko langileei eskatzea kontratuan adostutako baldintzak bete ditzan.
- Zerbitzuak eskaintzan adierazi bezala zorrotz egitea bermatzea, edo behar bezala onartutako aldaketekin, eta lan programa betetzea.
- Preskripzio Teknikoen Agirian bere erabakipean utzitako gai teknikoak definitzea.
- Interpretazioari dagokionez sortutako gai tekniko oro argitzea, betiere kontratuaren baldintzak aldatzen ez badira.
- Sortutako gorabeherak edo arazoak aztertzea, kontratua normal betetzea eragozten badute edo zerbait aldatzea gomendagarri egiten badute, kasuan kasuko proposamenak izapidetuz, hala badagokio.
- Beharrezko jarduketak proposatzea, zerbitzuak egiteko beharrezko baimen eta autorizazioak erakunde eta partikularretatik lortzeko, eta horiei lotuta agertutako arazoak konpontzea.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 53

- Martxan dauden lan edo eragiketa jakin batzuen berehalako zuzendaritza maila pertsonalean eta bere erantzukizunpean hartzea, larritasun edo premiazko kasuetan; horretarako kontratistak beharrezko material eta langileak jarri beharko ditu bere esku.

3.3. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratazio organoaren kontratatzailearen profilera sartzea Euskadiko kontratazio publikoko plataformaren bitartez egingo da: https://www.contratacion.euskadi.eus/w32-kpeperfi/es/contenidos/poder_adjudicador/poder299/es_doc/es_arch_poder299.html

4. AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA, PREZIOAK BERRIKUSTEA, KREDITUA IZATEA.

4.1. AURREKONTUA

Hasierako indarraldirako aurreikusitako kontratuaren gehienezko gastuaren aurrekontua (Balio Erantsiaren gaineko Zergarik gabe) Ezaugarrien Taulako C.1 atalean jaso da, eta lizitazioaren oinarri gisa erabiliko da.

Ondorio guztietarako ulertuko da aurkeztutako eskaintzetan balorazio faktore guztiak jaso direla, enpresa adjudikaziodunak kontratua zuzen garatzeko egin beharreko gastu guztiak, hain zuzen ere, gastu orokorrak, material suntsikorra, tresnak eta lanabesak, gastu finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, baita aplikagarriak diren zerga mota guztiak, indarrean dauden xedapenen arabera, nolanahi ere Preskripzio Teknikoen Agirian aurreikusitako zehaztasun guztiei erreparatuz. BEZari dagokion kopurua partida independente modura jasoko da.

Aurrekontu hori gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira.

4.2. BALIO ZENBATETSIA

Balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren ondorioetarako, Ezaugarrien Taulan C.2) atalean adieraziko da.

Kontratu baten balio zenbatetsia kalkulatzeko kopurua osoa hartzen da oinarritzat, BEZa kanpo utzita. Kalkulu hori egiteko kontuan hartuko da balio zenbatetsi osoa, kontratuaren balizko luzapenak eta edozein aukera barne hartuz, kontratua aldatzeko kopurua (lizitazio aurrekontuaren kopuruan oinarrituz kalkulatutakoa), eta, hala badagokio, prima edo ordainketak hautagai edo lizitatzaileei, baita, hala badagokio, artikulu horretan aipatutako gainerako kasuak ere.

4.3. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ezaugarrien Taularen C.5) atalean hala aurreikusiz gero, prezioak berrikusi ahalko dira. Hala gertatuz gero, atal horretan jasotako formula edo kalkulua erabiliko da, betiere SPKLren 103-105 artikuluekin bat etorriz.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 53

4.4. KREDITUA IZATEA

Aurrekontu aplikazioa Ezaugarrien Taulako C.4) atalean adierazi da.

Aski kreditu dago, kontratazio organoak onartutako aurrekontu kopururaino.

Ezaugarrien Taularekin bat etorriz, espedientea aldez aurretik izapidetuz gero, kontratua adjudikatzea kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo da, hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura. Bidenabar, Udalak betebeharra izango du kontratazioak eskatutako gastuei eraginkortasuna emateko aski kopuru kontsignatzeko urtero aurrekontuan, beste ekitaldi batzuetara iritsiz gero.

Zenbait urtetan egin beharreko zerbitzuak izanez gero, kreditua izatea eta etorkizunean eskuragarri egotea kontratu honen Ezaugarrien Taulako C.4) atalean aurreikusi da.

Kanpo finantzaketa egonez gero, Ezaugarrien Taulako C.6) atalean jasoko da.

5. LIZITATZAILEEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA, ETA PROPOSAMENEN DOKUMENTAZIOA

5.1. LIZITATZAILEEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1.) Proposamenak aurkeztu ahalko dituzte pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak zein atzerritarrak, banaka zein aldi baterako elkartuta (SPKLren 69. art.), jarduteko ahalmen osoa baldin badaukate, eta ez badaude SPKLren 71. artikuluan edo beste xedapen aplikagarri batean kontratatzeko ezarritako debeku egoeraren batean.

Lizitatzaileak pertsona juridikoak baldin badira, agiri honetako kontratuaren prestazioak bere estatutu edo sorrerako arauekin bat eginez bereak diren helburuen, xedearen edo jarduera alorraren barruan egon beharko dira, eta kontratua zuzen egiteko azpiegitura egokia eduki beharko dute.

2.) Horrez gain, pertsona interesdunek aski kaudimen ekonomiko eta finantzario izatea egiaztatu beharko dute kontratu hau zuzen garatzea arriskuan egon ez dadin izaera ekonomiko edo finantzarioko gorabeheren ondorioz. Kontratua egikaritzeko, bidenabar, kontratua zuzen egikaritzeko kaudimen tekniko edo profesional egokia eduki beharko da.

Aipatutakoa Ezaugarrien Taulako F) atalean zehaztutako baliabideen bitartez egiaztatuko da.

Erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuen kasuan, kontratista enpresa sortu berri bat bada, hala ulertuta bost urte baino gutxiago duena, kaudimen teknikoa horretarako F.2) atalean adierazitako baliabideen bitartez egiaztatuko da, enpresa sortu berrientzat berariaz jasotakoa.

3.) Kaudimena beste enpresa batzuei erreferentzia eginez egiaztatzea.

Sozietateen talde baten pertsona juridiko menderatzaileen kasuan, taldeko sozietateak kontuan hartu ahalko dira, hala badagokio, pertsona juridiko menderatzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatze aldera, betiere lizitatzaileak egiaztatzen

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 53

badu kontratuak egikaritzeko sozietate horien beharrezko baliabideak benetan bere esku dituela.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaburua beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahalko da, beraiekin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera, betiere kontratua betearazteko epe osoan benetan kaudimen eta baliabide horiek izango dituela erakusten badu, eta horretarako baliatzen duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Baldintza beretan, SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako enpresa elkarteetan biltzen diren enpresaburuek aldi baterako elkarteetatik kanpoko entitateen gaitasunetara jo ahalko dute.

Hala ere, SPKLren 90.1.e) artikuluan adierazten diren ikasketa tituluei eta profesionalei buruzko irizpideak edo lan esperientzia direla eta, enpresek soilik jo ahalko dute beste entitate batzuen gaitasunetara entitate horiek aipatutako gaitasunak behar dituzten zerbitzuak emango badituzte.

Enpresa batek beste entitateen gaitasunetara jo nahi duenean, botere adjudikatzailearen aurrean frogatuko du beharrezko baliabideak eskuragarri izango dituela, horretarako entitate horien konpromiso idatzia aurkeztuz.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurkeztuko du aurreko paragrafoak aipatutako konpromisoa.

Enpresa batek beste entitate baten gaitasunetara jotzen duenean kaudimen ekonomiko eta finantzarioen irizpideei dagokienez, botere adjudikatzaileak entitate haren eta besteen arteko erantzukizun bateratuko moduak eskatu ahalko dizkie kontratua betetzean, baita izaera solidarioarekin ere.

5.2. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.) Lizitatzaileek haien eskaintzak nahitaez elektronikoki prestatu eta aurkeztu beharko dituzte, Euskadin Kontratazio Publikoko Plataformaren eskaintzak prestatu eta aurkezteko tresnaren bitartez, Ezaugarrien Taulako G. atalak beste zerbait esaten badu salbu.

2.) Euskadin Kontratazio Publikoko Plataformaren eskaintzak prestatu eta aurkezteko tresna erabiltzeak honako hau dakar:

- Lizitatzaileak eskaintzak telematikoki prestatu eta aurkeztea.
- Sistemak eskaintzak elektronikoki zaintzea.
- Agiriak plataformaren bidez ireki eta ebaluatzea.
- Eskaintza elektronikoa eta horrekin batera aurkeztutako beste edozein agiri elektronikoki sinatuta egon beharko dira; Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10. artikuluan onartutako sinadura sistemaren bat erabilita, hain zuzen.

3.) Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ezingo du beste enpresaburu batzuekiko aldi baterako elkartean proposamenik sinatu, baldin eta bakarka egin badu, eta ezingo da aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ageri. Printzipio hori urratuz gero, berak aurkeztutako proposamen guztiak ezetsiko dira.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 53

4) Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak agiriko klausula eta baldintza guztiak erabat onartzen dituela inolako salbuespenik gabe.

5) SPKLren 133. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, enpresa lizitatzaileek adierazi egin beharko dute, hala badagokie, adierazpen osagarri argudiatu batekin, aurkeztutako zein agiri administratibo eta tekniko eta zein datu diren, haien ustez, konfidentzial gisa hartu beharrekoak. Ezaugarri hori, gainera, argi eta garbi adierazi beharko da hala jotako dokumentuan bertan (gainean idatzita, alboan edo beste edozein modutan). Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazio edo datuen artean konfidentzialtzat hartu ahalko dira sekretu teknikoak edo merkataritzakoak dituztenak edo eskaintzaren alderdi konfidentzialak jasotzen dituztelako. Horrez gain, lehia faltsutzeko erabili daitekeen gainerako informazioa ere zehaztuko dute, bai lizitazio prozedura honetan, bai ondorengoetan ere. Kontratazio organoaren konfidentzialtasun betebeharra, zein haien mendeko zerbitzuena, ezingo da adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora zabaldu, ezta txostenen eta dokumentazioaren eduki osora ere, hala badagokio, kontratazio organoak zuzenean edo zeharka sortutakoak lizitazio prozeduran zehar. Hedapen mugatua daukaten agirietara baino ezingo da zabaldu, eta inolaz ere ez publikoki eskuragarri dauden agirietara.

Adierazpen argudiatua aurkezten ez bada, ulertuko da ez dagoela izaera hori duen datu edo agiririk.

Kontratazio organoak lizitatzaileek aurkeztutako proposamenen konfidentzialtasuna bermatzen du, SPKLren 133. artikuluarekin bat etorriz.

5.3. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

A) MOTA GUZTIETAN (IREKIA, IREKI SINPLIFIKATUA ETA IREKI OSO SINPLIFIKATUA) GUTUN AZAL EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOETAKO EDUKI KOMUNA:

A1) GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA JASOKO DUENA:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, nahitaez Europako Kontratazio Agiri Bakarrarekin batera (EKAB), kontratazio bakoitzarekin batera argitaratuko den ereduarekin bat etorriz.

2. Enpresaburuen elkartea eratuz gero edo kaudimena kanpo baliabideekin egiaztatzen bada, orduan ezaugarri hori EKABen bete beharko da, eta enpresaburuen elkarteko kide guztiek bete beharko dute, eta, hala badagokie, baita kaudimena eskaini duten entitateek ere. Konpromiso idatzian adieraziko da hura eratzen dutenen izenak eta gertakariak, horietako bakoitzaren parte hartzea, baita formalki aldi baterako elkarte eratzeko konpromisoa hartzen dela ere, kontratuaren adjudikaziodun izanez gero. Enpresa bakoitzak bere EKABa aurkeztu beharko du. Erabilitako kaudimenari dagokion enpresei lotutako EKABa ere aurkeztu beharko da.

3. Eskaintzaileari lotutako enpresen zerrendari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, II. Eranskinari jarraiki.

4. Hala badagokio, konfidentzialtasun adierazpena, agiri honen 5.2.5 klausulan adierazi bezala.

5. Agiri osagarriak, Ezaugarrien Taulako G.1) atalean, hala badagokio, hala ezarriz gero.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 53

A2) BALIO JUDIZIOAREN MENDEKO IRIZPIDEAK BILDU BEHAR DITUEN GUTUN AZAL EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA (IRIZPIDE KUALITATIBOAK):

1. Lizitatzaileek euren eskaintzak Ezaugarrien Taulako J) atalean ezarritako formulen bidez zenbagarriak ez diren balorazio irizpideen bitartez balioztatu eta haztatu ahal izateko beharrezko agiriak aurkeztu beharko dituzte.

2. Gutun azal honetan ezin izango da eskaintza ekonomikoa sartu, ez eta eskaintza ekonomikoaren gaineko agiri garrantzitsurik ere, ez formularen bidez zenbagarriak diren irizpideen gaineko agiririk ere.

3. Ezaugarrien Taulako B.5) atalean aldaerak (hobekuntzak) aurkezteko aukera aurreikusiz gero, proposatutakoek lotura zuzena izan beharko dute kontratuaren xedearekin, ekonomikoki ebaluatu beharko dira eta aipatutako atalean finkatutako baldintzak errespetatu beharko dira. Kontratazio organoak hobekuntza horiek adjudikazio erabakian berariaz onartuz gero, kontratuaren parte bihurtuko dira.

A3) FORMULA BITARTEZ ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA BILDU BEHAR DUEN GUTUN AZAL EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA.

Proposamen bakarra edukiko du, lizitatzaileak edo ordezkatzen duen pertsonak sinatuta, eta agiri honen I. eranskinean azaltzen den ereduaren arabera idatzita.

Hala ere, B.5) atalean aldaerak aurkeztea baimentzen bada, baimendutako irtenbide edo aldaera oro jaso ahalko da, baita, ondorioz, eskaintza ekonomikoen aldaerak ere.

- Eskaintza ekonomikoan, partida independentean azalduko da jasanarazi beharko den BEZa.
- Eskaintza ekonomikoa ezin izango da, inolaz ere, kontratuaren lizitazio aurrekontuan adierazitako zenbatekoa baino gehiagokoa izan.
- Ondorio guztietarako, kontzeptu guztiak eskainitako prezioaren barne daudela ulertuko da, hau da, gastuak, tasak eta esparru fiskal guztietako arielak, eta erakunde kontratistaren hobari industrialak, BEZa salbu; BEZa partida independente bezala jasanaraziko da.

Ez dira onartuko omisioak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak, eragotzi egiten badute Udalak eskaintza aztertzeko funtsezkotzat jotakoa argi eta garbi ikustea; ez dira onartuko, ezta ere, aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, lizitazio aurrekontua gainditzen dituztenak, agiri honen I. eranskin gisa ageri den proposamenen eredua nabarmen aldarazten badute, konparazio zifrak baldin badituzte, esaterako, proposamenik abantailatsuena baino “horrenbeste gutxiago” edo “ehuneko gutxiago", edo antzeko kontzeptuak, edo lizitatzailearen aitorpena jasotzen badute, eskaintza bideragarria ez izatea eragingo duten akatsak edo funsgabetasuna aitortuz.

Letraz eta zenbakiz adierazitako eskaintzak bat etorri ezean, letraz azaldutakoa hartuko da kontuan (salbuespena izango da letraz adierazitako zenbatekoak bakarrik gainditzen badu lizitazio oinarria), baldin eta dokumentazioa aztertzetik eratorritako irizpide arrazionalak erabilita Kontratazio Mahaiak besterik erabakitzen ez badu.

Adierazi denez, eskaintza ekonomikoan kontu akatsik egonez gero, zuzendu egin ahal izango dira.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 53

Eskaintzak baztertzea eragin ez duten kontraesanen kasuan, Udalari gehien komeni zaiona hartuko da kontuan.

B) PROZEDURA MOTA BAKOITZAREN BERARIAZKO EDUKIA. Aurreko atalean adierazitako dokumentuaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:

B1) ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN ETA HARMONIZATU GABEAREN MENDE DAGOEN PROZEDURA IREKIAN AURKEZTEA

Balio judizio baten mende dauden irizpideak aztertzen ez direnean, proposamenak **BI GUTUN AZAL ITXI EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOTAN AURKEZTUKO DIRA (1. eta 2.):**

Gutun azaletatik eskatutako dokumentazioa honako hau izango da:

- 1. GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA. Aurreko A1) atalean aipatutako dokumentazioa gehitu behar da.

- 2. GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA: FORMULEN BITARTEZ ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA: Aurreko A3) atalean aipatutako dokumentazioa gehitu behar da.

Balio judizio baten mende dauden irizpideak aztertzen direnean proposamenak **HIRU GUTUN AZAL ITXI EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOTAN AURKEZTUKO DIRA (1. ,2. eta 3.**):

Gutun azaletatik eskatutako dokumentazioa honako hau izango da:

- 1. GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: Aurreko A1) atalean aipatutako dokumentazioa gehitu behar da.

- 2. GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA: BALIO JUDIZIO BATEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA (irizpide kualitatiboak): Aurreko A2) atalean aipatutako dokumentazioa gehitu behar da.

- 3. GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA: FORMULEN BITARTEZ ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA: Aurreko A3) atalean aipatutako dokumentazioa gehitu behar da.

B2) PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAN AURKEZTEA (SPKLren 159.1 art.).

Balio judizio baten mende dauden irizpideak aztertzen ez direnean, proposamenak **GUTUN AZAL EDO FITXATEGI ELEKTRONIKO BAKARREAN AURKEZTUKO DIRA**, kanpoaldean kontratuaren izena ekarri beharko du eta honela esan beharko du:

- 1. GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA PROPOSAMENA.

Gehitu beharreko gutun azaleko dokumentazioa aurreko A1) eta A3) ataletan adieraziko da.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 53

Balio judizio baten mende dauden irizpideak aztertzen direnean, proposamenak **BI GUTUN AZAL EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOTAN AURKEZTUKO DIRA (1. eta 2.).**

Gutun azaletatik eskatutako dokumentazioa honako hau izango da:

- 1. GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA BALIO JUDIZIO BATEN MENDEKO IRIZPIDEAK:

  - Aurreko A1) eta A2) atalean aipatutako dokumentazioa gehitu behar da.

  - Sektore Publikoko Enpresa Sailkatuen eta Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean edo kasuan kasuko autonomia erkidegoko Erregistro Ofizialean izena eman izanaren inskripzio ziurtagiria, eskaintzak aurkezteko azken datan, salbu eta Ezaugarrien Taularen G.1) atalean beste zerbait ezarri bada. **Ziurtagiri horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu behar da, adieraziz ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu.**

- 2. GUTUN AZALA EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOA: FORMULA BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

  - Aurreko A3) atalean aipatutako dokumentazioa gehitu behar da.

B3) PROZEDURA IREKI OSO SINPLIFIKATUAN AURKEZTEA (SPKLren 159.6 art.).

FITXATEGI ELEKTRONIKO bakarra izango du, agiri hauekin:

- 1. FITXATEGI ELEKTRONIKOA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA PROPOSAMENA:

  - Aurreko A1) eta A2) atalean aipatutako dokumentazioa gehitu behar da.

  - Sektore Publikoko Enpresa Sailkatuen eta Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean edo kasuan kasuko autonomia erkidegoko Erregistro Ofizialean izena eman izanaren inskripzio ziurtagiria, eskaintzak aurkezteko azken datan, salbu eta Ezaugarrien Taularen G.1) atalean beste zerbait ezarri bada. **Ziurtagiri horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu behar da, adieraziz ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu.**

5.4. ENTREGATZEKO TOKIA ETA EPEA

Eskaintzak elektronikoki aurkezteko Ezaugarrien Taulako H.3) atalean horretarako aipatutako helbide elektronikoa erabili beharko da.

Ezaugarrien Taulako G atalean aurreikusiz gero eskaintzak gutun azal itxietan aurkeztea, proposamenak Amorebieta-Etxanoko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, Herriko Plaza z.g., 48340, Amorebieta-Etxano helbidean, 08:30etik 14:30era arteko ordutegian, Ezaugarrien Taulan ezarritako epe barruan. Eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna baliogabea balitz, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ezaugarrien Taulako G atalean aurreikusiz gero eskaintzak gutun azal itxietan aurkeztea, eta proposamena postaz bidaliz gero, lizitatzaileak bidalketa postetxera noiz eraman duen justifikatu beharko du eta Amorebieta-Etxanoko Udaleko Erregistroari iragarri beharko dio

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 53

eskaera bidali duela telefaxez edo telegramaz egun berean. Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidaltze jakinarazpena eskaerak hartzeko epea igarotakoan jasotzen bada, eskaera ez da onartuko. Egutegiko hamar egun igaro badira aipatutako datatik eskabiderik jaso gabe, hori ez da onartuko.

6. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzak adjudikatzeko irizpideak Ezaugarrien Taulako J atalean zehaztu dira.

Bi lizitatzaile edo gehiagoren guztizko puntuazioaren artean berdinketa gertatuz gero, Ezaugarrien Taulako J.2) atalean azaldu bezala ebatziko da.

7. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia Ezaugarrien Taulako I. atalean jasotako kideek osatuko dute.

Prozedura ireki oso sinplifikatuan ez da mahairik egongo, Ezaugarrien Taulak ez badu hala berariaz aurreikusten.

8. ADITUEN BATZORDEA

Balio judizioaren mende dagoen kuantifikazioa duten irizpideen balioespena, automatikoki ebaluagarriak diren irizpideei dagokien haztapena baino handiagoa esleituta izateagatik bidezkoa den kasuetan, kualifikazio egokia duten adituek eratzen duten batzordeak egin beharko du; batzorde horrek, gutxienez, hiru kide izango ditu, eta horiek kontratazio organoaren mendeko zerbitzuetakoak izan ahalko dira, baina inolaz ere ezingo dira kontratua proposatzen duen organoari atxikita egon, hari egokituko baitzaio eskaintzak ebaluatzea edo hark organismo tekniko espezializatu bati agintzea, agirietan behar bezala identifikatutakoa.

9. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA

9.1. GUTUN AZALAK EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren, Kontratazio Mahaiak bilera pribatua egingo du, **1. gutun azal edo fitxategi elektroniko**ei lotutako dokumentazioa aztertzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan huts edo akats material zuzengarriak ikusten baditu Mahaiak, interesdunei posta elektroniko bidez jakinaraziko zaie eta gehienez ere 3 eguneko epea emango die akats horiek zuzentzeko.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 53

Eskatutako gutun azal edo fitxategi elektronikoren bat ez bada aurkezten proposamena baztertzeko arrazoia izango da.

Kontratazio Mahaiak, 1. gutun azal edo fitxategi elektronikoko dokumentazioa kalifikatu ondoren, eta, behar izanez gero, zuzenketak egin ondoren, irizpide kualitatiboak dituzten gutun azalen proposamenak ireki eta aztertuko ditu, barne mailan, hala badagokio.

Irizpide kualitatiboen balorazioa egin ondoren, edo, horrelakorik ez badago, 1. gutun azal eta fitxategi elektronikoa ireki ondoren, ekitaldi publikoan, lizitazio iragarkian iragarritako lekuan, egunean eta orduan, kontratuaren iragarkia irakurriko da, aurkeztutako proposamenak zenbatuko dira eta onartu diren eta baztertu diren enpresen berri emango da. Azken kasu horretan, enpresak baztertzeko arrazoiak ere zehaztuko dira.

Jarraian, formulak aplikatuz zenbat daitezkeen irizpideen gutun azalak edo fitxategi elektronikoak publikoki irekiko dira.

Gutun azal hori beti ekitaldi publikoan irekiko da, salbu eta lizitazioan baliabide elektronikoak erabil daitezkeela aurreikusten denean.

Eskaintzaren bat(zuk) ustez bideraezinak izanez gero, modu ezohikoan baxuak direlako, Ezaugarrien Taulako J.3) atalean ezarritakoarekin bat etorriz, ausarkeriaz jokatu duen lizitatzaile orori eskaera egingo zaio, aski epe emanez, prezioen edo kostuen edo beste edozein parametroren maila baxua modu argudiatuan eta zehatzean banakatu eta justifikatu dezan, horretan oinarrituz eskaintzaren ezohikotasuna adierazi bada, horretarako egokitzat jotako dokumentazioa eta informazioa aurkeztuz, ondorio horietarako garrantzitsuak badira, SPKLren 149. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Prozedura ireki sinplifikatu eta oso sinplifikatuan errekerimendu hau eskaintzak sailkatu ondoren egingo da.

9.2. ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA

Kontratazio Mahaiak, edo, halakorik ezean, kontratazio organoak, aurkeztutako proposamenen sailkapena egingo du, beheranzko ordenan, SPKLren 150. artikuluarekin bat etorriz.

Sailkapen hori egiteko Kontratazio Mahaiak Ezaugarrien Taulako J atalean adierazitako balorazio irizpideak hartuko ditu kontuan.

Kontratazio Mahaiak, kasuan kasuko txostena prestatu ondoren eta adjudikazio irizpideen balorazioa egin eta gero, adjudikazio proposamena aurkeztuko dio Kontratazio Organoari (sailkapena Kontratazio Mahaiak egin badu), eskaintzarik onena egin duen lizitatzailearen alde.

Adjudikazio proposamen horrek ez du inolako eskubiderik sorrarazten proposatutako lizitatzailearen alde, Kontratazio Organoaren erabakirik ez dagoen artean.

Mahaiaren erabakiek behin-behineko izaera izango dute beti.

9.3. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEARI ERREKERIMENDUA

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahaiaren adjudikazio proposamena onartu ondoren, eta SPKLren 150.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kasuan kasuko zerbitzuek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote 10 egun balioduneko epean (7 egunekoa

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 53

prozedura ireki sinplifikatuan eta oso sinplifikatuan), errekerimendua jaso duen egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako hau egin dezan:

1) Dokumentazio hau aurkez dezan –erantzukizunez adierazi zuen bazuela, EKABa aurkeztuz, lehenago aurkeztu bada salbu-, lizitatzailearena zein baliatuko den gaitasuna duen bestelako enpresena ere:

a) Pertsona enpresaburuaren izaera egiaztatzen dutenak, honela:

a.1.- Pertsona fisikoa denean, Nortasun Agiri Nazionala eta pertsona juridikoa izanez gero, sozietatearen eratze-eskritura, edo aldatzearena, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan inskribatutakoak, betekizun hori legedi zehatz aplikagarriak eskatzen badu. Hori beharrezkoa ez bada, eraketa eskritura edo agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

a.2.- Ordezkaritza ahalak.

Europar Batasuneko estatu kideren batekoak izan baina Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko erregistro egokian inskribatuta daudela egiaztatu beharko da, kasuan kasuko estatutako legeriaren arabera edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuta, arauz ezarritakoari jarraituz, aplikatu behar diren erkidegoko xedapenen arabera.

Gainontzeko enpresaburu ez espainiarrek, **Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoek**, jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute dagokion estatuan (enpresaren helbidea zein lurralde eremutan dagoen aintzat hartuta) Espainiak daukan Diplomazia Misio Iraunkorraren edo kontsuletxearen txostenaren bitartez. Obra kontratuak egiteko, enpresa horiek egoitza bat izan beharko dute Espainian zabalik. Horrez gain, eragiketetarako ahaldunak edo ordezkariak izendatuta eduki behar dituzte eta, azkenik, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko dute.

Enpresa bat baino gehiago aldi baterako elkarte gisa aurkeztuz gero lizitazioan, orduan Aldi Baterako Enpresa Elkartea modu formalean eratu izanaren eskritura aurkeztu beharko da. Era berean, elkarteko erakunde ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, kontratuaren ondorioz sortzen diren eskubide eta betebeharrak berau amaitu arte betetzeko adina eskumen izango dituena. Dena dela, enpresek botere mankomunatuak sortu ahalko dituzte kopuru handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

b) Dagokien sailkapena izatea egiaztatzen dutenak edo, hala badagokio, Ezaugarrien Taulako F) atalean eta agiri honetan eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala eta gaikuntza profesionala betetzeko betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen dutenak.

Kaudimena egiaztatzeko beste enpresa batzuetara jo badute, kontratua betetzeko atxiki edo baliatzeko hitzemandako baliabideak benetan izatea egiaztatu beharko da, SPKLren 76.2 artikuluarekin bat etorriz.

Dokumentuak originalak izan beharko dira, edo kopiak, benetakoak edo konpultsatuak, arlo horretan indarrean dagoen legediarekin bat etorriz, eta gaztelaniaz edo itzulpen ofizialarekin.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 53

Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresen Erregistro Ofizialean edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta egotea ziurtatzeko egiaztagiria aurkezteak salbuetsi egingo du lizitatzailea, bertan islatutakoaren arabera eta kontrakoa frogatu ezean, enpresaburuak pertsonalitatearen eta jarduteko gaitasunaren, ordezkaritzaren, lanbide edo enpresa gaikuntzaren, ekonomia eta finantza kaudimenaren eta sailkapenaren inguruan baldintzak aurkeztetik, baita bertan jaso beharreko kontratatzeko debekuak izan edo ez izateari dagokionez ere (SPKLren 96. art.).

Aurkeztutako dokumentazioan konpondu daitezkeen akatsak edo hutsak baldin badaude, interesdunari gehienez ere hiru (3) eguneko epea emango zaio akats horiek zuzentzeko.

2) Datu hauen agiri egiaztagiriak aurkeztea:

a) Zerga betebeharrak betetzen egunean izatea, estatu mailako zein erkidego mailako Ogasunari dagokionez (Administrazioarekin kontratatzeko berariazkoa) eta Gizarte Segurantzarekikoak.

b) Hala badagokio, kontratua betetzeko hitzemandako baliabideak benetan edukitzea, kontratazio organoak eskatutakoa, agiri hauekin bat etorriz.

c) Dagokion bermea eratzea, hala badagokio, Ezaugarrien Taulako E) atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

Horretarako emandako epean adjudikaziodun gisa proposatuko hautagaiak behin betiko bermea aurkeztu ezean, puntuazioan hurrengo dagoen hautagaiari egingo zaio adjudikazio proposamena, eta dagokion epea emango zaio aipaturiko behin betiko bermea eratzeko eta dokumentazioa aurkezteko, klausula honetan adierazitako inguruabarretan (SPKLren 159.4 art.).

Lizitatzaileak kontratatzeko debekua izango du, SPKLren 71.1.e) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, gaitasunari, ordezkaritzari eta kaudimenari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak egitean gauza faltsuak esanez gero.

Azpiatal honetan ezarritakoa aipatutako epean betetzen ez duen lizitatzaileak, dolo, erru edo zabarkeria dela medio, kontratatzeko debekua duela ezarri ahalko da. SPKLren 71.2.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

9.4. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak, gehienez hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, egiaztatu egin beharko du adjudikazio kopuruaren %5eko behin betiko bermea, BEZik gabe, eta SPKLko 102.7 artikuluak aipatutako behin-behineko prezioak dituzten kontratuen kasuan, aipatutako ehunekoa kalkulatzeko finkatutako gehieneko prezioa hartuko da erreferentzia modura (BEZik gabe). Bermea aurkeztu, erantzukizun eta itzultzeko moduak SPKLko 107-114 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriko da.

Behin betiko bermea eratu beharretik salbuetsiko dira estatuko lege edo kasuan kasuko erkidegoko xedapenetan salbuespen hori aitortuta duten entitateak; azken kasu horretan kasuan kasuko eskumenen esparrura mugatuko da.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 53

Kontratua aldatu delako haren balioa aldatzen bada, bermea hamabost egun naturaleko epean egokituko da, adjudikaziodunari kontratua aldatzeko ebazpenaren berri ematen zaionetik zenbatzen hasita.

Ezaugarrien Taulako E) atalean hala ageri bada, modu argudiatuan, berme osagarria eratu ahalko da, behin betiko bermearen kopuruari gehituko zaiona, SPKLko 107.2 artikuluan aurreikusitako mugekin.

Berme aldian kontratistak bere kontura konpondu beharko ditu emandako zerbitzuetan antzemandako gorabehera guztiak, erantzukizunen ondoriozko eraginak gorabehera, SPKLren 311. artikuluaren arabera eta agiri honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratua egin ondoren, eta berme aldia igaro eta gero, behin betiko bermea itzuli egingo da, betiere kontratua ongi bete bada eta erantzukizunik sortu ez bada, bermearekin ordaindu beharrekoak, SPKLko 111. artikuluarekin bat etorriz.

9.5. ADJUDIKAZIOA

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eman beharko du adjudikazio ebazpena, SPKLren 150.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Adjudikazio ebazpena arrazoitua izan beharko da, hautagai edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da:

https://www.amorebieta-etxano.eus/es/ayuntamiento/contratacion/perfil-de-contratante-1.

Jakinarazpena baliabide elektronikoen bitartez egingo da SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratuaren adjudikazioduna aukeratzeko irizpide bakarra prezioa denean, adjudikazioa gehienez hamabost eguneko epean egin beharko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratua adjudikatzeko kontuan hartu behar diren irizpideak hainbat direnean edo irizpide bakarra egon baina bizitza zikloaren kosturik txikiena erabiltzen denean, adjudikazio egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen direnetik kontatzen hasita, salbu eta administrazio klausula berezien agirian beste zerbait ezarri bada.

Proposamena gutun azal edo fitxategi elektroniko batean baino gehiagotan badago, eta egintza independentetan ireki beharko balira, proposamenaren zati bat duen gutun azal edo fitxategi elektronikoa irekitzeko lehen ekitalditik aurrera hasiko da zenbatzen.

Aldez aurretik aipatutako epeak luzatu egingo dira, hamabost egun baliodunez, ustezko ezohikotasun egoeran dauden eskaintza bat edo batzuk identifikatuz gero, SPKLko 149.4 artikuluko 4. atalean adierazi bezala.

Adjudikazioa zehaztutako epeen barruan egiten ez bada, lizitatzaileek proposamena baztertzeko eskubidea izango dute.

10. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 53

10.1. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Adjudikatu ondoren, kontratua agiri administratiboan formalizatuko da, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituz, eta agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotara sartzeko.

Hala ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikotzat jo dadin, dagozkion gastuak haren kargura izanik.

Kontratua Enpresen Aldi Baterako Elkarte bati adjudikatuz gero, enpresa horiek egiaztatu egin beharko dute aipatutako elkartea eratzen dutela, eskritura publikoan, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, eta elkarteari emandako IFZ.

Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi, aurretiaz formalizatu ez bada.

Prozedura ireki oso sinplifikatuan, Ezaugarrien Taulan kontrakoa adierazi ezean, ez da beharrezkoa izango kontratua aparteko agirian formalizatzea. Kontratistak adjudikazio ebazpenaren onarpena sinatuz formalizatu ahalko da kontratua.

Enpresa adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua hurrengo atalean adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, lizitazio oinarri den aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan, eta, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen aurka egingo da eraginkor, eratuz gero, SPKLren 71.2.b) artikuluan ezarritakoa gorabehera.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzetan sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera. Aldez aurretik, SPKLren 150.2 artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta aurreko atalean ezarritako epeak aplikatuko dira.

Kontratua ez gauzatzeko arrazoiak Udalari egotzi ahal bazaizkio, atzerapenak eragin ditzakeen kalte eta galeren ondoriozko kalte-ordaina emango zaio kontratistari.

Kontratua formalizatzean osatu egiten da, eta, horrenbestez, ezingo da kontratua betetzen hasi kontratua formalizatu ez bada.

Kontratua formalizatu ondoren, Kontratatzailearen Profilean argitaratu beharko da, adjudikazio iragarkiko datu berdinekin.

Kontratua erregulazio harmonizatuaren mende baldin badago, EBAOn ere argitaratuko da.

10.2. KONTRATUA FORMALIZATZEKO EPEA

SPKLren 151. artikuluan aurreikusi gisa, lizitatzaile eta hautagaiek adjudikazioaren jakinarazpena egin eta, asko jota, hurrengo hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da kontratua.

Prozedura erregulazio harmonizatuaren mende badago, edo SPKLren 153.3 artikuluarekin bat etorriz errekurtso bereziaren mende egon badaiteke, kontratua ezingo da formalizatu harik eta adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaile eta hautagaiei bidali eta 15 egun baliodun igaro arte. Epe hori igaro ondoren, 5 egun balioduneko epean formalizatzeko eskaera egingo zaio kontratistari, etetea eragingo lukeen errekurtsoa aurkeztu ez bada edo aurkeztuz gero errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak bertan behera utzi badu, agiri honen laugarren klausulan ezarritakoarekin bat etorriz.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 53

Premiazko izapidetze kasuetan, kontratua formalizatzeko epea 7 egunekoa izango da, lizitatzaile eta hautagaiek adjudikazio jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Prozedura erregulazio harmonizatuaren mende badago, edo SPKLren 153.3 artikuluarekin bat etorriz errekurtso bereziaren mende egon badaiteke, kontratua ezingo da formalizatu harik eta adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaile eta hautagaiei bidali eta 15 egun baliodun igaro arte. Epe hori igaro ondoren, kontratistari eskaera egingo zaio kontratua 3 egun balioduneko epean formalizatzeko.

11. KONTRATUA BETETZEA ETA KONTRATUA ALDATZEA

11.1. KONTRATUA EGIKARITZEA

- Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi, aurretiaz formalizatu ez bada.

- Kontratua kontratuan bertan eta baldintzen agirietan jasotakoaren arabera egikarituko da, eta interpretaziorako Udalak kontratistari emandako oharren arabera.

- Kontratista kontratua osorik egikaritzera behartuta dago, SPKLko 192 eta 197 artikuluetan jasota dagoen bezala.

- Lanak egiterakoan, baldintzen agiri honetan xedatutakoaren arabera kontratua aldatu beharko balitz, SPKLko 190, 191 eta 203 artikuluetan jasotakoaren arabera jardungo da. Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak Lan Programa eguneratu beharko du.

- Kontratua etengo balitz, SPKLko 208. art. eta hau garatzeko arauak bete beharko dira. Udalak lanak etetea erabakiko balu, Etete Akta jasoko da.

- SPKLko 311. artikuluaren arabera, kontratista izango da emandako zerbitzuen erantzulea eta Udalarentzat eta hirugarrentzat sortutako ondorioen erantzule, kontratua egikaritzerakoan izandako omisio, erregelamendu edo aginduen arau-hauste, akats, metodo desegoki edo ondorio akatsdunengatik.

- Kontratazio organoak zehaztuko du kontratistak egindako prestazioak lana egikaritzeko eta betetzeko baldintzak betetzen dituen, SPKLko 311. artikuluak xedatzen duen bezala.

- Adjudikaziodunak bermatu beharko du zerbitzua hitzartutako baldintzetan ematen dela kontratua indarrean dagoen denbora guztian, ezingo delarik horniduran aldaketarik egon, oporraldietan edo antzeko egoeratan.

- Onarpena SPKLko 210. artikuluan jasotakoaren arabera egingo da.

- Kontratistak zein bere azpikontratistek Ezaugarrien Taulako K) atalean adierazitako kontratua betetzeko baldintza bereziak bete beharko dituzte.

  Ez betetzeak zehapenak ezartzeko espedientea abiaraziko du; zehapenak, proportzionaltasunaren arabera, kontratuaren prezioaren %10etik %15era artekoak izango dira, eta kontratua suntsiaraztea ere eragin dezakete.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 29. orrialdea, guztira 53

11.2. LANEN PROGRAMA

Zerbitzua adjudikatu ondoren, kontratistak lanak egikaritzeko egutegi bat aurkeztuko du, hasteko eta hasierako egikaritzearen edo ondoren adierazitakoarekin datekin bat datorrena. Udalak kontratuaren arduradunaren bidez, aldaketak edo agindu batzuk bete beharra ezar dezake, betiere kontratuaren klausulen aurkakoak ez badira.

Kronograman, hala badagokio, ondokoak sartu beharko ditu kontratistak:

a) Beharrrezko baliabideak zehaztu, esaterako, instalazioak, ekipoa eta materialak, batez besteko errendimenduak adierazita.
b) Zerbitzu, ekipo eta instalazioen egikaritze epeen estimazioa egunetan.
c) Programatutako zerbitzuaren hileko balorazioa eta balorazio metatua.

Bidenabar, eta lanak egitean, hileko plana berraztertzeko eskatuko da, eta bertan jasoko dira egindako egokitzapenak.

11.3. ALDAKETAK EGITEA

Kontratazio Organoak, kontratua egin eta interes publiko arrazoiak direla bide, kontratuan aldaketa egitea erabaki ahalko du, SPKLren 205-207 artikuluetan aurreikusitako moduan.

Kontratua aldatu ahalko da Ezaugarrien Taulako N) atalean berariaz hala aurreikusi bada.

Bestela, salbuespen modura, kontratua SPKLren 205. artikulua aplikatuz aldatu ahalko da.

Horrelakoetan, Kontratazio Organoak adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, betiere kontratuaren prezioaren %20 baino gehiagoko aldaketa eragiten ez badute.

Aldaketak unitateak murriztea edo suntsitzea badakar, orduan kontratistak ez du inolako kalte ordainik erreklamatzeko eskubiderik izango.

Kontratazio organoak ez badu kontratua aldatzea behar bezala onartu, agiri honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, orduan erantzukizunak sortuko dira kontratistarentzat, eta baimenik gabe egindako aldaketa horiek kobratzeko eskubide oro galduko da.

12. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

12.1. LAN ARLOKO, INGURUMEN ARLOKO, DATUEN BABESERAKO ETA JABETZA INTELEKTUALEKO BETEBEHARRAK

Adjudikaziodunak arlo fiskalean, lan arloan, gizarte segurantzaren arloan, arrisku profesionalen prebentzioaren arloan, babes sozialaren arloan, laneko segurtasun eta higienearen arloan, datuak babesteko arloan, jabetza intelektualaren arloan eta, oro har, bere jarduerari aplikagarria zaion beste edozein arauditan indarrean dauden xedapenak betetzeko betebeharra izango du.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 53

Xedapen horietatik honako betebehar hauek eratorriko dira adjudikaziodunarentzat:

a) Lan arloko betebeharrak:

1. Kontratistak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko osasun eta segurtasun arloan indarrean dauden araudiak betetzeko betebeharra izango du. Kontratistak betebehar horiek betetzen ez baditu, horrek ez du inolako erantzukizunik eragingo Udal honentzat.

2. III. Eranskinean eta Ezaugarrien Taulako O) apartatuan horrela adierazten bada, adjudikazioduna enplegatzaile moduan subrogatu beharko da lan kontratuetan, zeintzuen baldintzak espediente honen agiri osagarrietan jasotzen diren. Aipatutako Eranskinak ez badu betebehar hori jasotzen, indarrean dagoen legeriak edo hitzarmen kolektibo konkretuak horrela xedatzen duenean bakarrik izango da beharrezkoa subrogazioa. Eranskin horretan langileen zerrenda bat jasoko da, adina, antzinatasuna, kategoria profesionala eta gainontzeko eskuratutako eskubideak bitzen dituena. Enpresa berriak horiek errespetatu egin beharko ditu. Datu horiek informatzeko baino ez dira ematen. Datuok egun zerbitzua ematen duen enpresak emandakoak dira, eta kontratazio organoak ez du erantzukizunik izango zehaztasun, osotasun edo egiatasunari dagokionean. Hori guztia, zerbitzu horiek ematen dituen enpresan sortutako ondorio juridikoak alde batera utzi gabe.

3. Adjudikaziodunaren konturako langile oro kasuan kasuko lan kontratuarekin babestuta egon beharko da. Langile horiek ez dute inolako lan harremanik izango Udalarekin, soilik eta esklusiboki adjudikaziodunaren mende egongo baitira; adjudikaziodunak izango ditu aipatutako langileekiko nagusi gisa dagozkion betebehar eta eskubide guztiak, lan arloko legediarekin bat etorriz; adjudikaziodunaren eta langileen artean sortutako betebeharren erantzukizuna ez du inoiz Udalak izango, kaleratzeak edo har daitezkeen bestelako neurriak zuzenean zein zeharka kontratu hau betetzearen, ez betetzearen, bertan behera uztearen edo interpretatzearen ondoriozkoak izan arren. Bidenabar, adjudikaziodunak alta eman beharko die Gizarte Segurantzan zerbitzuan lan egiten duten langile guztiei, eta kasuan kasuko lan mutualitateari atxikitzeko dokumentua sinatu beharko du, lan istripuen arriskuak estaliz, arlo horretako legediak ezartzen duen edo ezarriko duen oro zorrotz betez, baita laneko segurtasun eta osasun arloko eta laneko arriskuen prebentzioko araudiak ezarritakoa ere.

4. Ez da lan harremanik egongo adjudikaziodunak kontratua betetzera bideratuko dituen langileen eta Udalaren artean; hortaz, aipatutako langileak adjudikaziodunaren antolaketa eta zuzendaritza ahalmenaren mende egongo dira legez ezarritako arlo eta esparru guztietan, eta, horrenbestez, adjudikazioduna izango da kasuan aplikagarri den lege xedapen ororen obligaziodun eta erantzule bakarra, kontratazio arloa, Gizarte Segurantzaren arloan, laneko osasun eta segurtasun arloan; hortaz, aipatutako langileek ez dute inolako lan lotura edo lotura juridikorik izango Udalarekin, legez edo kontratua dela bide Udalari dagozkion ikuskaritza eta kontrol gaitasunak edozein direla ere.

5. Adjudikaziodunak bere erantzukizunpean hartzen du bere langile guztiek laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuak ezarriko dituen lan operazioetarako prozedura eta arau guztiak betearaztea eta betetzea.

6. Udalak adjudikaziodunari eskatu ahalko dio adjudikatutako lanetara bideratutako langile guztien Gizarte Segurantzaren alta, baja edo aldaketen agirien kopiak entregatu ditzan, baita Gizarte Segurantzari egindako kuoten likidazioen kopiak ere, RNT eta RNL ereduak (lehengo TC1 eta TC2) edo etorkizunean horien ordezkoak izan daitezkeenen kopiak. Udalak eskatzen duen aldi oro, kontratistak bere esku jarri beharko du kontratu hau

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 31. orrialdea, guztira 53

betetzera bideratutako bere enpresako langileen kontratuei buruzko informazio zehatza. Edozein aldaketa eginez gero, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio, modu fede emailean, unitate kudeatzaileari; kontratua betetzera atxikitako langileen kopurua murriztea ez da baimenduta egongo, ezta lan kualifikazio bera ez daukaten langileek ordeztea. Adjudikaziodunak horretarako egingo duen jakinarazpenean adierazi egingo da kategoria profesionala, kontratu mota, antzinatasuna, lanaren asteko ordu kopurua eta eguneko ordutegia, ordeztu nahi diren langileenak zein gehitu nahi diren langileenak.

7. Kontratuaren indarraldian zehar, langileen gutxienez %2k minusbaliotasuna edukitzeko betebeharra bete beharko du adjudikaziodunak, edo baimendutako neurri alternatibo aitortuekin bete beharko du, lizitazio unean aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorriz, horretara behartuta dagoenean, 1/2013 Errege Lege Dekretuko 42.1 artikuluarekin bat etorriz, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena; Udalak kontratua betetzen den edozein unetan eskatu ahalko ditu aipatutakoa betetzen dela benetan egiaztatzeko beharrezko agiriak.

8. Indarrean dagoen legedi sozialean eta laneko arriskuen prebentzioko legedian aurreikusitako oro zorrotz betetzeko betebeharra izango du, eta gizarte aseguru, subsidio, kalte ordain, ordainsari eta, oro har, lan arloko beste edozein betebehar bere kontura ordaindu beharko dira.

b) Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako neurriak

Adjudikaziodunak emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako berdintasun plan bat prestatu eta aplikatzeko betebeharra bete beharko du, agiri honek aipatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztean onartzen duen gisan, enpresa horrelako egoera batean dagoenean:

- 50 langiletik gora izatea.
- Hitzarmen kolektibo aplikagarrian hala ezarri denean.
- Lan agintaritzak hala ebatzi duenean prozedura zigortzaile bateko zigorra ordezteko neurri modura.

Enpresak berdintasun arloko enpresa mailako ziurtagiria izanez gero, aurreko puntuan aipatutako betebeharretik salbuetsita egongo da.

c) Ingurumen arloko betebeharrak

Kontratistak ingurumena babesteko arloan indarrean dauden xedapenak betetzeko betebeharra izango du, indarrean dauden araudietan zein kontratazio hau arautuko duten agirietan ezarritakoak. Kontratazio organoak Preskripzio Teknikoen Agirian adierazi ahalko du lizitatzaileek zein organismotik edo organismoetatik lor dezaketen aipatutako betebeharrei buruzko informazioa. Horrez gain, zerbitzuak emateko lan guztietan honako irizpide hauek errespetatu beharko dira:

- Zerbitzuak emateko beharrezko ur kontsumoa gutxitu eta berrerabiltzeko neurriak ezarriko dira.
- Beharrezko neurriak hartuko dira eragozpenak sor ditzaketen zaratak eta bibrazioak gutxitzeko, horrelako eragozpenak eragin ditzaketen lanak

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 32. orrialdea, guztira 53

herritarren atseden ordutegiekin bat datozen orduetan eginez, eta, nolanahi ere, zaratari buruzko berariazkoa araudia errespetatuz.

- Sor daitezkeen hondakinak indarrean dagoen araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz landu beharko dira.

- Ingurumen atmosferikoaren, baliabide naturaletako (ur lasterrak, baso masak, …) eta kontratua betetzearen ondorioz kaltetu daitezkeen bestelako ondarea kutsatzea saihestuko da.

Artikulu honetan deskribatutako betebeharrak kontratua betetzeko baldintza berezi gisa hartzen dira. Ingurumen arloan ezarritakoa betetzen ez bada, oso larritzat jotako zehapenak ezarriko dira.

d) Datuen babesa

Datu pertsonalen tratamenduak

Esleipendun gertatzen den entitateak datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Gardentasun-printzipioa betetzea datuen tratamenduan

Jakinarazten da erakunde kontratistaren eta lizitatzaileen harremanetarako datu pertsonalak eta ordezkarienak alderdi bakoitzak lotzen dituen harreman juridiko edo administratiboa garatzen den bitartean tratatuko direla, lizitazio hau kudeatzeko eta ebazteko, harremanari eta komunikazioari eusteko, bai eta ezarritako harremana kudeatzeko ere. Alderdien arteko harreman juridiko edo administratiboan oinarritzen da tratamendu hori.

Ez da aurreikusten datu horiek hirugarrenei lagatzerik, ezta nazioarteko datu-transferentziarik ere.

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritako eskubideak erabili ahal izango dira helbide honetan: Herriko Plaza z.g., 48340 Amorebieta-Etxano, Bizkaia. Informazio gehiago nahi izanez gero, datuenbabesa@amorebieta.eus helbide elektronikora jo dezakezu, datu pertsonalen tratamendu honi buruz.

Zerbitzua ematean datu pertsonalak tratatzen badira, erakunde esleipendunak klausula honetan adierazitakoa ere bete beharko du. Hala ere, lizitatzailea kontratu honen adjudikazioduna bada, Udalak emango duen "Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babesari buruzko eranskina" dokumentua ere sinatu beharko du.

Tratamenduaren enkarguaren xedea

Entitate esleipenduna gaitzen da, tratamenduaren arduradun gisa jardungo duena, Udalaren kontura tratatzeko, tratamenduaren arduradun gisa, kontratazioaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoak diren datu pertsonalak, eta "Erantzukizunpeko

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 33. orrialdea, guztira 53

adierazpena eta datuen babesari buruzko eranskina" dokumentuan zehaztuko da. Dokumentu hori esleipendunarekin sinatuko den kontratua formalizatzearekin batera sinatuko da.

Eragindako informazioa identifikatzea

Kontratazio-agiriaren xedea betetzearen ondoriozko prestazioak gauzatzeko, Udalak "Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babesari buruzko eranskina" dokumentuan deskribatzen den informazioa jarriko du erakunde esleipendunaren, tratamendu-eragilearen, eskura.

Iraupena

Klausula honetan adierazitakoa indarrean egongo da harreman lotesleak irauten duen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan. Nolanahi ere, datuak berrikusteko eta egiaztatzeko egokitzat jotzen diren aldizkako berrikuspenak egin ahal izango dira, eta tratamenduaren arduradunak informazioa eman ahal izango du.

Zerrenda hori amaitutakoan, erakunde esleipendunak datu pertsonalak ezabatu beharko ditu, tratamendu-eragile gisa dituen betebeharrei buruzko hurrengo apartatuan aurreikusitakoaren arabera, eta, nolanahi ere, ez du kopiarik gorde beharko, salbu eta Udalak berariaz baimentzen badu.

Tratamendu-eragilearen betebeharrak

Erakunde esleipendunak eta, hala badagokio, bere ardurapeko langileek betebehar hauek izango dituzte:

a. Tratatu beharreko datu pertsonalak edo sartzeko biltzen dituenak baldintza-agiri honen xederako soilik erabiltzea. Inola ere ezingo ditu datuak bere helburuetarako erabili.

b. Udalaren jarraibideen arabera tratatzea datuak.

c. Udalaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat eramatea idatziz, honako hauek jasoko dituena:

- Erakunde esleipendunaren izena eta harremanetarako datuak, eta, hala badagokio, datuak babesteko ordezkariarenak.
- Udalaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
- Segurtasun-neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien deskribapena, aplikatu behar badira, honako hauei dagokienez:
    - Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea.
    - Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.
    - Gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzeko gaitasuna.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 34. orrialdea, guztira 53

- o Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesua.

d. Erabiltzaileen lagapenak eta datuak: Oro har, ezin izango zaie daturik jakinarazi hirugarren pertsonei edo erakundeei, salbu eta ordezkaritza eta defentsa judizialaren esparruan legitimatutako hirugarrenek ezagutu behar duten informazioa.

e. Azpikontratazioa: Debekatuta dago akordio honen xede diren prestazioak azpikontratatzea, Udalaren aldez aurreko baimenik gabe.

f. Kontratazio-prozesu honen ondorioz eskuratu dituen datu pertsonalak isilpean gordetzeko betebeharra, baita xedea amaitu ondoren ere.

g. Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko, eta udalaren esku izango dutela betebehar hori betetzen dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.

h. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duen erakunde esleipenduneko langileen datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza bermatzea.

i. Udalari laguntza ematea datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideei erantzuteko; tratamendua mugatzeko; banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko (profilak egitea barne) eta, hala badagokio, datuak transferitzeko. Erakunde esleipendunak arduradunaren datuen tratamenduari dagozkion eskubideak baliatzeko eskaeraren bat jasotzen badu, gehienez ere 48 orduko epean jakinarazi beharko dio Udalari.

j. Udalari dagokio interesdunei informazioa jasotzeko eskubidea ematea, eta, beraz, erakunde esleipendunak ez ditu bere informazio-ereduak aurkeztuko. Nolanahi ere, Udalak emandako informazio-ereduak erabiliko ditu, edo, datuak biltzeko edozein bide edo kanaletan sartu behar badira, eskatu egingo ditu.

k. Datuen segurtasun-arrakalak jakinaraztea: erakunde esleipendunak udalari jakinaraziko dizkio, bidegabeko atzerapenik gabe eta, nolanahi ere, 24 orduko gehieneko epea igaro baino lehen, posta elektronikoz kontratuaren objektua betearazteko edo gainbegiratzeko arduradunari, ezagutzen dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, bai eta gorabehera dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzitsua den informazio guztia ere. Zehazki, intzidentziaren deskribapena eta izan ditzakeen ondorioak, eragindako pertsonen kategoria eta gutxi gorabeherako kopurua, eta intzidentzia leheneratzeko eta arintzeko hartutako neurriak.

   Segurtasun-urraketa hori pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako arriskutsua izatea gertagaitza denean, ez da beharrezkoa izango jakinarazpena egitea.

l. Udalari laguntza ematea datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazioak egiteko, hala dagokionean.

m. Udalari laguntza ematea kontrol-agintaritzari aurretiazko kontsultak egiteko, hala dagokionean.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 35. orrialdea, guztira 53

n. Udalaren esku jartzea bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar den informazio guztia, bai eta Udalak edo hark baimendutako beste auditore batek egiten dituen auditoriak edo ikuskapenak egiteko behar den informazio guztia ere.

o. Segurtasun-neurriak ezartzea tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, trazabilitatea eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko. Era berean, gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar berrezartzeko aukera ematen dutenak, tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko aukera ematen dutenak. Hala ere, onartutako estandarrekin bat etorriz, alderdiek jarraibide bidez ezarri edo adostu ditzaketen beste batzuk ezarri ahal izango dira, eta, gainera, ziurtagiri eta egiaztagirien bidez egiaztatu ahal izango dira. Zehazki, ezarri beharreko segurtasun-neurriak, gutxienez, kontratua formalizatzeko dokumentuarekin batera sinatu beharreko "Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babesari buruzko eranskina" dokumentuan zehaztutakoak izango dira.

Hori guztia, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren 2.3 artikuluaren arabera, adjudikaziodunak behar diren segurtasun-neurriak ezarri beharko ditu kontratistek kontratu honen xedearen arabera ematen dituzten zerbitzuen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez SENekiko adostasuna bermatzeko. SENekiko adostasun-adierazpenak edo -ziurtagiriak erakusteak adostasun horren berme nahikoa izango du, eta entitate kontratatzaileak egiaztatuko du, Errege Dekretu horren 38. artikulua.

Kontratistari emandako egokitzapen-epea, 311/2022 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean ezarritakoa, igaro arte, entitate kontratatzaileak ereduzko segurtasun-neurri batzuk ezartzen ditu, zerbitzuen arabera sailkatuta, eta, gutxienez, erakunde esleipendunak egiaztatzeko moduan egon beharko du.

p. Datuen xedea: Entitate esleipendunak udalari itzuli beharko dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, datu horiek jasotzen dituzten euskarriak, prestazioa bete ondoren. Itzulketak berekin ekarri behar du entitate esleipendunak erabilitako ekipo informatikoetan dauden datu guztiak ezabatzea.

Kontratista datuak babesteko arloan estatu mailako zein Europar Batasuneko araudiaren mende egongo da, eta kontratuko funtsezko betebehar bat izango da (SPKLren 211.1-f).

e) Jabetza intelektuala edo industriala

Amorebieta-Etxanoko Udala izena eta logotipoa Patente eta Marken Espainiako Bulego aurrean erregistratutako bereizgarria da, eta Udal hau da horren titularra. Lizitazio honetan parte hartzeak edo lizitazioaren adjudikazioduna izateak ez du aipatutako marka erabiltzeko inolako eskubiderik ematen.

Agiri honen ondoriozko emaitzak Udal honen titulartasun esklusibokoak izango dira, baita kontratua egitearen ondorioz sortuko diren jabetza industrial eta intelektualeko eskubide guztiak ere, barne hartuz, hala badagokio, kontratuaren indarraldian zehar sortutako balizko eguneraketak, aldaketak, dokumentazioa, eskuliburuak, etab.

Jabetza intelektualarekin babes daitezkeen obrei dagokienez, adjudikaziodunak obren gaineko eskubide guztiak esklusibotasunez laga beharko ditu, barne hartuz erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketa eskubideak, inolako mugarik gabe, kontratua sinatzen den unean ezagututako ustiapen modalitate guztietarako, legez

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 36. orrialdea, guztira 53

ezarritako denbora tarterik luzeenean, eta mundu mailako eraginkortasunez, horren truke inolako konpentsazio ekonomiko osagarririk gabe. Programa informatikoak sortu edo garatzea bada obra, adjudikaziodunak sortutako softwarearen iturri kodea entregatu beharko du prestazioa bukatu ondoren, edo, hala badagokio, aldeetako batek kontratua bertan behera uzten duen unean.

Jabetza industrialaren eskubideen kasuan, titulartasuna esklusiboa da, eta edozein esparrutan ustiatzeko aukera hartuko du barne, baita industria jabetzako edozein bulegotan erregistratzeko edo ez erregistratzeko aukera ere, mundu mailan eta legez ezarritako denbora tarterik luzeenean.

Kontratua betetzeko beharrezko jabetza intelektual edo industrialeko eskubideen titularra adjudikazioduna izan beharko da, edo ustiapen eskubidea duenaren baimena izan beharko du; Udalak inguruabar hori egiaztatu ahalko du, kontratuaren indarraldiaren edozein unetan. Hala, adjudikaziodunak Udala salbuetsiko du hirugarrenen aurreko erantzukizunetik, edozein motatako erreklamazioak tarteko, agiri honen xede den kontratua betetzeko baliatutako hornidura, material, prozedura eta bitartekoen haritik, horien gaineko jabetza intelektuala eta industrialeko eskubideen titularretatik iritsitakoak.

12.2. EPEAK BETETZEA

Adjudikaziodunak kontratua osatzeko epe osoa betetzeko betebeharra izango du, baita Udalak, hala badagokio, ezarritako epe partzialak betetzeko betebeharra ere.

Aipatutako epe osoa amaitutakoan kontratistak berari leporatu ahal zaizkion arrazoien ondorioz atzerapenak izanez gero, Udalak kontratua suntsitzea edo zehapen ekonomikoak ezartzea aukeratu ahalko du. Isunak egunekoak izango dira, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan. Nolanahi ere, kontratista atzerapenez eratzeak ez du Udalaren aldez aurreko ohartarazpen edo interpelaziorik eskatuko.

Atzeratzearen ondoriozko zehapenak kontratuaren prezioaren %5eko multiplo batera iristen diren aldi bakoitzean, eta kontratistaren ez betetzea epe partzialei dagokienean, edo epeak betetzeko atzerapenaren arabera epe osoa betetzea ezinezkoa izango dela susma daitekeenean, kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua suntsitzeko edo zehapen berriak ezarriz kontratua betetzen jarraitzea erabakitzeko.

Zehapenak aplikatu eta ordaintzeak ez du kanpoan uzten Udalari eskubidez egokitu ahal zaion galeren kalte ordaina, kontratista atzeratzeagatik sortutakoa.

12.3. SEKRETU PROFESIONALA ETA GARDENTASUNA

SEKRETU PROFESIONALA

Adjudikaziodunak informazio konfidentziala sekretupean eta erabateko konfidentzialtasunez gordetzeko konpromisoa hartzen du, eta hirugarrenei ez jakinarazteko konpromisoa hartzen du, salbu eta agiri honetan aurreikusitako kasu zehatzetan; aipatutako konfidentzialtasun eta sekretu betebeharrak bermatzeko neurri tekniko, juridiko, prestakuntzakoak eta antolaketakoak ezarri beharko ditu.

Bere elkarteko langileen artean soilik kontratua betetzeko sarbidea behar duten langileengana mugatuko du adjudikaziodunak informazio konfidentzialera sarbidea izateko aukera, eta horretarako konpromisoa hartzen du; bestalde, informazio konfidentzialera sarbidea izan

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 37. orrialdea, guztira 53

aurretik, konfidentzialtasun kontratu bat sinatu beharko du, agiri honetan ezarritakoa beteko dela bermatuz. Halaber, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du agiri honetan islatutako inguruabar berdinak jasoko dituen konfidentzialtasun akordioak sinatzeko edozein enpresa, elkarte, fundazio, profesional eta abarrekin, proiektuan zenbait ekintza egiteko azpikontratatzen baditu, hala jokatzea posible denean kontratuaren aurreikuspenen arabera.

Adjudikaziodunak soilik eta esklusibotasunez konpromiso horren esparruan erabili ahalko du informazio konfidentziala, esparrua bete eta garatzeko helburu bakarrarekin; ezingo da kontratu honetan jasota ez den beste helburu edo xede baterako erabili edo aplikatu.

Kontratua bukatzean, edozein arrazoi dela medio bukatu arren, eta kontratuan beste zerbait aurreikusiz gero salbu, adjudikazioak informazioa itzuli egin beharko du, eta, hala badagokio, sistema informatikoetatik modu seguru eta eraginkorrean ezabatu beharko dira, horietara gehitu badira.

Konfidentzialtasun betebeharra kontratuaren indarraldian zehar egongo da indarrean, eta kontratua bukatu eta hurrengo bost (5) urteetan ere indarrean egongo da, kontratua bukatzeko arrazoia edozein dela ere. Bestalde, konfidentzialtasun konpromisoaren lurralde esparrua mundu mailakoa da.

Informazio konfidentzial modura hartuko da aurreko elementuen gaineko edozein datu, prozedura, teknika, know-how, informazio edo azalpen, edozein izaera izanik, teknikoa, komertziala edo ekonomikoa, Udalak jakinarazi, azaldu edo adjudikaziodunaren esku jartzen duena, horretarako erabilitako prozedura edo komunikabidea edozein dela ere, ahozko komunikazioa barne, kontratuaren indarraldian zehar.

Hala ere, ez da informazio konfidentzial gisa hartuko eta, hortaz, ez da klausula honetan aurreikusitako betebeharren mende egongo adjudikaziodunak honako hau egiaztatu ahal badu:

- Adjudikaziodunak kanal zilegi batetik jakin badu Udaletik jakin baino lehen.
- Udaletik jasotzen den unean edo geroago publiko edo jakina bihurtuz gero.
- Adjudikaziodunarekiko konfidentzialtasun betebeharrik ez daukaten hirugarrenen bitartez jakinez gero.
- Adjudikaziodunak garatzen badu, Udaletik jasotako informazio konfidentziala gorabehera, betiere agiri bidez egiaztatu ahal badu.
- Adjudikaziodunak hirugarren bati jakinarazteko betebeharra baldin badauka, legeak hala eskatuta. Hala ere, kasu horretan, adjudikaziodunak lehenbailehen jakinaraziko dio Udalari, azken horrek egokitzat jotako neurriak har ditzan, informazio horren konfidentzialtasuna gordetzeko. Nolanahi ere, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du soilik jakinaraztera behartutako informazioa emango duela, eta informazioaren konfidentzialtasuna zaintzeko beharrezko egintza oro egingo duela.
- Udalak hedatzeko baimena ematen badio.

GARDENTASUNA

Adjudikaziodunak beharrezkoak diren datu edo agiri guztiak eman beharko dizkio Amorebieta-Etxanoko Udalari, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen III. Kapituluan bildutako preskripzioak behar bezala

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 38. orrialdea, guztira 53

betetzeko, baita Eusko Legebiltzarraren 2/2016 Legearen 49.4 artikulua betetzeko ere, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa.

Eskatutako datu edo dokumentuak lehen aipatutako lege xedapenak betetzeko beharrezko denbora tartearekin emango dira; horretarako igorriko den errekerimenduan horren berri emango da.

Eskatutako dokumentuak edo datuak entregatzea atzeratuz gero, edo entregatzen ez badira, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz zehapenak jaso ditzaketen jokabide gisa hartuko dira.

12.4. ARAU BEREZIAK ENPRESA KONTRATISTAREN LAN KONTRATUDUN LANGILEEI DAGOKIENEZ

1. Esklusibotasunez enpresa kontratistari dagokio kontratua betetzera atxikitako lantaldearen parte izango diren langileak hautatzea, agirietan eskatutako titulazio eta esperientzia betekizunak betetzen badituzte (titulazio eta esperientziako betekizun zehatzak ezarri diren kasuetan). Udalak baldintza hauek betetzen direla egiaztatu ahal izango du.

   Enpresa kontratista lantaldean egonkortasuna izan dadin saiatuko da, eta haren osaeran dauden aldaketak zehatzak eta justifikatutako arrazoiengatik izan daitezela, zerbitzuak behar bezala funtziona dezan (eskakizun hori argudiatzen duten arrazoiak daudenean); Udalari horien guztien berri emango dio une oro.

2. Enpresa kontratistak enpresaburu orori berez dagokion zuzendaritza boterea aplikatzeko betebeharra hartzen du bere gain, kontratua betetzeko ardura duen lantaldeko langile guztiengan aplikatzeko, modu erreal, eraginkor eta jarraituan. Hain zuzen ere, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, langileen ordezkapenak egitea baja edo laneratu ez direnen kasuetan, lege betebeharrak Gizarte Segurantzako gaietan, kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea barne, hala dagokionean, laneko arriskuen prebentzio arloko lege betebeharrak, diziplina ahala baliatzea, baita enplegatuaren eta enplegatzailearen kontratu harremanetatik ondorioztatutako eskubide eta betebehar oro ere.

3. Enpresa kontratistak zainduko du kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileek beren jarduera burutzen dutela, betiere kontratuaren xede gisa agirietan mugatutako jardueraren funtzioak gainditu gabe.

4. Enpresa kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, plantillan integratutakoa; honako betebehar hauek izango ditu:

   a) Enpresa kontratistaren solaskide gisa jardutea Udalaren aurrean, batetik, enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta, bestetik, Udalaren arteko komunikazioa bideratuz, kontratua egitearen ondoriozko gai guztiei dagokienez.

   b) Lana kontratua egikaritzeko langileen artean banatzea, eta langile horiei beharrezko lan jarraibide eta aginduak ematea, kontratatutako zerbitzuaren prestazioari dagokionez.

   c) Lantaldeko kideek agindu zaizkien funtzioak zuzen betetzen dituztela ikuskatzea, baita langile horiek haien lanpostuetan bertaratzen direla kontrolatzea ere.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 39. orrialdea, guztira 53

d) Kontratua egikaritzeko izendatutako langileen oporren araubidea antolatzea; hartara, enpresa kontratista zuzen koordinatu beharko da Udalarekin, zerbitzuaren funtzionamendu zuzena ez aldatzeko.

e) Kontratua egikaritzeko izendatutako lantaldearen osaeraren aldaketak Udalari jakinaraztea, aldaketak puntualak edo iraunkorrak izan.

f) Adjudikaziodunaren eta Udalaren arteko harremanari dagokionez, bi entitateen arteko komunikazio oro idatziz egin beharko da, eta Udaleko harremanetarako pertsona izango da kontratuaren arduraduna.

13. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK LANAK ORDAINTZEA ETA FAKTURAZIOA

13.1. ORDAINTZEA

Zerbitzuak Ezaugarrien Taulako C.8 atalean ezarritakoaren arabera ordainduko dira.

Kontratistak adjudikazioan adostutako prezioa kobratzeko eskubidea du, benetan egindako lanengatik eta fomalki Udalaren oniritziarekin onartutakoengatik, baina ez du kontratua egikaritzerakoan eragindako matxura eta kalteengatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Udalaren errua izan denean salbu.

Zerbitzuei lotuta dauden prestatze jardueren eta material eta makineria multzoaren bilketaren konturako ordainketetarako, SPKLko 198 artikuluan jasotakoa bete beharko da.

Kontratistak ezingo du inolako prezio edo kalte-ordainik erreklamatu kontratuko klausuletatik kanpo “zerbitzu agindurik” gabe egindako lanengatik, proiektua bikain osatzea bermatzeko egindako zerbitzuak erabat beharrezkoak zirela argudiatu eta egiaztatu arren, aurreko paragrafoetan aipatutakoaren ondorioz.

Kontratua guztiz edo zati batean gauzatu izana egiaztatzen duten dokumentuak erantsiko zaizkio fakturari, eta faktura onartu ondorengo hogeita hamar egunetan prezioa ordaintzeko betebeharra izango du Udalak.

Udala berandutuko balitz, kontratistari ordaindu beharko dizkio, hogeita hamar eguneko epe hori bete ondoren, berandutza interesak eta kobratze kostuengatik kalte-ordaina, eragiketa komertzialetan berankortasunaren kontrako borrokan neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jaso bezala.

Kontratistak Udalaren aurrean duen kobratzeko eskubidea lagatu ahal izango du, zuzenbidearen arabera.

13.2. FAKTURAZIOA

Fakturak kontratuaren arduradunak berretsi beharko ditu, eta indarrean dauden xedapenen arabera eman beharko dira; zehazki, honako datu hauek eduki beharko dituzte: *serie zenbakia, igorpen data, egindako lanen deskribapena, faktura emailearen eta jasotzailearen IFZ eta jasanarazitako BEZa*.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 40. orrialdea, guztira 53

Aurkeztutako fakturan eskatutako betekizunen bat falta bada, zuzentzeko eskatuko da; ordaintzeko epea ez da hasiko harik eta faktura zuzendu arte.

Kasuaren arabera, faktura elektronikoki edo paperean aurkez daiteke, jarraian zehaztutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen araudian aurreikusitakoaren arabera.

Faktura elektronikoa

Sektore Publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontularitzako erregistroa sortzen duen abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 9. artikuluan ezarritakoa betez, baita Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua ere, pertsona juridikotzat hartzen diren kontratistek betebeharra izango dute faktura elektronikoa Amorebieta-Etxanoko Udalerako Faktura Elektronikoen Sarrerako Puntu Orokorraren bitartez aurkezteko (IFZ P4800300H), DIR3 kodeei erreferentzia egingez (kontabilitate bulegoa, organo kudeatzailea eta izapidetze unitateak), Udaleko webgunean argitaratutako informazioarekin bat etorriz (https://www.amorebieta-etxano.eus/es/facturas).

Amorebieta-Etxanoko Udala FACe atariari atxikita dago; beraz, fakturak webgune horretan (https://face.gob.es/) edo eskeintzen dituen zerbitzu web erabiliz aurkeztu ahal izango dira. Horrez gain, hornitzaileek ef4ktur (https://www.ef4ktur.com), fakturazio programa elektronikoaren bitartez bidali ahal izango dituzte faktura elektronikoak, behin azken bertsioa deskargatu ostean eta FACe bere ziurtagiri elektronikoa alta eman eta gero.

Betebeharrak pertsona juridiko guztiak hartzen ditu barne, fakturaren kopurua eta sozietatearen forma edozein direla ere.

Faktura paperean

Faktura elektronikoa aurkezteko betebeharretik salbuetsita daude pertsona fisikoak edo kanpoko hornitzaileak.

Hala ere, elektronikoki fakturatzeko betebeharrik ez daukaten pertsona fisikoek, nolanahi ere, faktura elektronikoak aurkezteko eskubidea balia dezakete.

Faktura elektronikoa erabiltzen ez den kasuetan, kontratistek emandako fakturak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritakoa gorabehera.

Fakturan identifikatu egin beharko da faktura zein administrazio organori zuzentzen zaion.

Soilik kontratuari jarraiki benetan egindako lana ordainduko da. Kontratistak ezingo du adostutakoaz gain beste zerbitzurik egin arauz izapidetutako “zerbitzu agindurik” gabe.

Kontratistak ezingo du inolako prezio edo kalte-ordainik erreklamatu kontratuko klausuletatik kanpo “zerbitzu agindurik” gabe egindako lanengatik, proiektua bikain osatzea bermatzeko egindako lanak erabat beharrezkoak zirela argudiatu eta egiaztatu arren, aurreko ataletan aipatutakoaren ondorioz.

Lizitatzaileak, faktura bakoitzarekin batera, ziurtagiri eguneratu bat aurkeztu beharko du, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen egunean dagoela esanez; zorrak izanez gero, ordainketari dagokion izapidetzea baldintzatuta egongo da, harik eta zorrak kitatu arte.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 41. orrialdea, guztira 53

14. LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

14.1. LAGAPENA

Aldeek kontratu honetatik sortutako eskubideak laga ahalko dituzte SPKLren 214. artikuluan ezarritako baldintza eta betekizunekin eta Ezaugarrien Taulak horretarako aukera ematen badu.

Kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak enpresa kontratistak laga ahal izango dizkio hirugarren bati betiere lagatzailearen gaitasun teknikoak eta pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarria izan ez direnean, eta merkatuan lehiaren benetako murrizketa eragiten ez badu.

Ezingo da baimendu hirugarren bati lagatzea horrek kontratistaren ezaugarriak nabarmen aldatzea baldin badakar, ezaugarriak kontratuaren funtsezko elementu baldin badira.

Kontratistak haien eskubide eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko gutxienez honako betekizun hauek bete behar dira:

- Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena.

- Lagapena baimenduko da betiere betekizun hauek betetzen badira:

- Lagatzaileak kontratuaren kopuruaren gutxienez %20 egikarituta izatea. Betekizun hau ez da aplikagarria izango lagapena egitean kontratista konkurtsoan badago, likidazio fasea irekita egon arren, edo epaitegi eskudunari jakinarazi bazaio, konkurtsoa aitortzeko, negoziazioak hasi badira birfinantzaketa akordioa lortzeko edo hitzarmenaren aldez aurreko proposamen bati atxikitzea lortzeko, konkurtso legedian aurreikusitako inguruabarretan.

- Lagapen hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izatea, baita eska daitekeen kaudimena izatea ere, kontratuaren egikaritze fasearen arabera; dagokion gisan sailkatuta egon beharko da betekizun hori lagatzaileari eska bazaio, eta kontratatzea debekatzen duen zioren batean ez egotea.

14.2. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioa partzialki egitea adostu ahalko du hirugarrenekin, agirietan ezarritakoarekin bat etorriz, salbu eta Ezaugarrien Taularen Ñ atalean ezarritakoaren arabera, prestazioa edo horren zati bat zuzenean lehenak egin behar badu.

Azpikontratuak egiteko honako betekizun hauek bete beharko dira:

1. Ezaugarrien Taularen Ñ atalean hala ezarri bada, lizitatzaileak azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eskaintzan adierazi beharko du. Bertan ezarri beharko da kopurua, enpresaren izena edo profila, eta horiek definitzeko azpikontratisten gaitasun profesional edo teknikoko baldintzak kontuan hartuko dira. Eskaintzan adierazitakoa betetzen ez duten azpikontratuen kasuan, eskaintzan izenez aipatutakoak ez beste enpresaburu batzuk direlako edo eskaintzan aipatu gabeko prestazio zatiei dagozkielako, ezingo da egin harik eta hogei egun igarotzen direnera

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 42. orrialdea, guztira 53

arte jakinarazpena bideratu eta ziurtagiriak aurkezten direnetik, hain zuzen ere, enpresaburu horiek kontratatzeko debekurik ez dutela egiaztatzeko ziurtagiriak, salbu eta aurretik berariaz baimendu badira. Araubide hau aplikagarria izango da, halaber, azpikontratistak profil profesionala deskribatuz identifikatu badira eskaintzan.

2. Nolanahi ere, kontratistak kontratazio organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, kontratua egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, zein prestazio zati azpikontratatu nahi duen adieraziz eta azpikontratistaren izena, harremanetarako datuak eta ordezkari legala edo legalak adieraziz, eta azpikontratistak zati hori egikaritzeko gaitasuna duela aski justifikatuz, kontratistaren elementu tekniko eta giza elementuei eta esperientziari erreferentzia eginez eta kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatuz.

   Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari informazio horrek kontratu nagusiaren betearazpenean duen edozein aldaketa, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia.

   Azpikontratistak azpikontratatu nahi den kontratu zatia egiteko sailkapen egokia izanez gero, inguruabar horren komunikazioa aski izango da azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzeko.

   Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta jarraian egiaztatu ahalko da, beharrezkoa baldin bada larrialdi egoera bati erantzuteko edo premiazko neurriak hartu behar badira eta horrek aski justifikatzen badu.

3. Ezaugarrien Taulako Ñ atalean azpikontratatu ezin diren zenbait eginbehar kritiko ezarri ahalko dira; horrelakoetan, eginbehar horiek kontratista nagusiak berak egin beharko ditu. Eginbehar kritikoak zehaztuz gero, kontratazio espedientean justifikatu egin beharko da.

4. Azpikontratistak soilik kontratista nagusiaren aurrean egongo dira behartuta. Kode Zibileko 1597. artikuluko ekintza zuzena ezingo da aplikatu.

5. Kontratistak ordezkariei azpikontrataziorako langileen berri eman beharko die, lan legeriari jarraikiz. Bidenabar, Ezaugarrien Taulako K atalean aurreikusitako egikaritze baldintzak enpresa azpikontratistei jakinarazi beharko zaizkie, eta enpresa azpikontratistek ere bete egin beharko dituzte.

6. Kontratistak azpikontratista edo hornitzaileei adostutako prezioa ordaindu beharko die hogeita hamar egun naturaleko epean, faktura aurkezten denetik. Faktura aurkezten denetik faktura onartu edo adostasuna agertu arteko epea ezingo da izan hogeita hamar egun natural baino gehiagokoa.

15. ZEHAPENAK

15.1. ZEHAPENAK APLIKATZEA

Kontratistak ez badu betetzen agiri honetan edo SPKLen adierazitako baldintza eta betekizunen bat, orduan Udalak, ez betetzea dokumentatu eta argudiatu ondoren, eta

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 43. orrialdea, guztira 53

interesdunari gutxienez 5 egun naturaleko entzunaldia eskaini eta gero, hurrengo ataletan adierazitako zehapenak ezarri ahalko dizkio, zehapenak eragin dituzten arrazoien arabera.

Jokabidea kontratuko arau hauste modura tipifikatu zein ez, Udalak enpresari ordaindu beharreko kopurutik kenduko du egin gabeko prestazioei dagokien zenbatekoa, eta kalte edo galerak sortuz gero, kasuan kasuko kalte-ordaina eskatuko du.

15.2. FALTA ZIGORGARRIAK

Kontratuaren ondorioetarako falta zigorgarri gisa hartuko da kontratistaren ekintza edo omisio oro, agiri honetan edo SPKLen ezarritako betekizunak haustea eragiten badu.

Araua hautsi den ala ez zehazte aldera, egin gabeko prestazioaren garrantzia aztertu beharko da, zabarkeriaz jokatu den edo ez, prestazioen omisioa berriz gertatu edo errepikatu den, gorabeherak kontratu osoari dagokionez duen garrantzia, etab. Hortaz, zehapenak aplikatzerakoan egindako prestazioen kalitatea hartuko da kontuan, eta zehapena eragin duen arau hauste motarekiko proportzionalak izan beharko dira kontratu osoari dagokionez. Soilik aipatutako baloraziotik modu proportzional eta ekitatiboan eratortzen denean arau haustea egon izana hasiko da zehapenak ezartzeko prozedura. Aipatutako balorazioa egiterakoan aipatutako irizpideak, ekitatea eta proportzionaltasuna zaindu beharko dira.

Kontratistak egindako falta oro faltaren eraginari, proportzionaltasunari eta nahitasunari erreparatuz sailkatu da, falta arin, larri edo oso larri gisa, irizpide hauei jarraiki:

Falta arina: Falta arin gisa hartuko dira kontratuaren eraginkortasun eta funtzionamenduan kalte egiten duten faltak, nahita gaizki jokatzearen ondoriozkoak ez direnak, eta pertsona, animalia edo gauzei arriskurik eragiten ez badie, egindako lanen bizi ekonomikoa murrizten ez badute, bide, parke eta abarretako erabiltzaileei eragozpenik eragiten ez badie. Besteak beste, honako hauek izango dira:

- Lanetan hasierako mekanika operatibo arruntari ez erreparatzea.
- Kontratuaren prestazioa bertan behera utzi edo atzeratzea, hiru egunetik beherakoa; betebeharrak betetzean axolagabekeria edo zabarkeria.
- Oro har, betebeharrak ez betetzea edo puntualtasunik ez izatea, zabarkeriaz jokatzeagatik edo arduragabekeria barkagarriagatik.
- Agiri honetan edo kasuan kasuko preskripzio teknikoen agirian ezarritako edozein betebehar ez betetzea, agiri honetan larritasun handiagoz sailkatuta ez badago.
- Auzokideei alperreko eragozpenak eragitea.
- Lanak bukatu ondoren soberan geratutako materialak berehala ez kentzea.

Falta larria: Falta larri gisa sailkatuko dira kontratuko betekizun eta prestazioak edo eskatutako lanak edo ikuskaritzak maila nahikoz ez egitearen ondorioz egindako lanen bizitza ekonomikoan eragin negatiboa izan dezaketen faltak, edo erabiltzaileei arrisku eta eragozpenak eragin ahal badizkie, edo kalte larria eragiten badute kontratatutako langileen udal ikuskaritza edo kontrolean. Besteak beste, honako hauek izango dira:

- Kontratuaren prestazioa bertan behera uztea edo atzeratzea, hiru egun baino gehiagoz eta hamabost egun baino gutxiagoz, puntualtasun faltak errepikatzea, etengabe zabarkeriaz edo axolagabekeriaz jokatzea.
- Oro har egitekoak eta betebeharrak larriki ez betetzea eta urte bakarrean hiru falta arin izatea.
- Kontratua dela bide jakiten diren gaien inguruan dagokion diskrezioz ez jokatzea.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 44. orrialdea, guztira 53

- Produktu desegokiak erabiltzearen ondorioz zentroaren edo erabiltzaileen ondasunetan eragindako kalteak ez konpontzea.
- Urte berean hiru arau hauste arin egitea.
- Lanetan osasun eta segurtasun neurriei ez erreparatzea.
- Kontratatutako operazioetako batzuk ez egitea.
- Giza baliabide edo baliabide materialik ez izatea edo aski ez edukitzea.
- Preskripzio Teknikoen Agiriak baimentzen ez duen publizitatea jartzea.

Oso falta larria: Oso falta larritzat jotzen dira baldintzak modu nabarmenean haustea eragiten duten jarduketak, edo kontratistak nahita gaizki jokatzearen ondoriozkoak. Besteak beste, honako hauek izango dira:

- Adjudikazio irizpideak ez betetzean edo eskaintzan onartutako konpromiso bat edo batzuk ez betetzean, zehapena ezarriko zaio kontratistari.
- Udalari iruzur ekonomikoa egitea, errealitatearekin bat ez datozen fakturak emanez edo beste edozein modutan, dolo egon beharrik gabe.
- Kontratuaren prestazioa bertan behera uztea edo atzeratzea hamabost egunez edo gehiagoz, edo kontratua abandonatzea.
- Urtebeteko epean hiru falta larri egitea edo metatzea.
- Errendimendu falta argia, kontratua modu akastun eta desegokian egitea, kalitateari zein kantitateari dagokionez.
- Kontratuko prestazioak edo kontratuaren arduradunak idatziz agindutako lanak egiteari arrazoirik gabe uko egitea, betiere jarrera hori zuzenean adjudikaziodunari edo horren zuzendari, arduradun eta/edo langileei egotzi ahal bazaie.
- Delitu izan daitekeen edozein jokabide, bereziki instalazioetan lapurreta egitea eta hertsapenak.
- Kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak Udalaren baimenik gabe lagatzea.
- Sekretu profesionalaren betebeharra ez zaintzea.
- Elementu edo instalazio bat hondatzea ahalbidetzen duen nahitako jokabidea.
- Txostenetan faltsutasunak adieraztea.
- Aski baliabide material eta giza baliabide ez izatea kontratuaren xedea edo eskainitako epea zein kontratuaren arduradunak eskatutakoa betetzeko.
- Kontratua abandonatzea
- Ingurumen arloari dagokionez agiri honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.
- Edozein arau hauste larri errepikatzea.

Zigor horiei Ezaugarrien Taulako L atalean jasotakoak gehitu ahal zaizkie.

15.3. ZEHAPENEN KOPURUA

Kontratua egikaritzen hasteko atzeratutako edo kontratua egikaritzea etendako egun bakoitzeko agiri honen 12.2 artikuluan aurreikusitako zigorra ezarriko da, Ezaugarrien Taulako L atalean beste zerbait xedatu bada salbu.

Horrez gain, honako zehapen hauek ere ezarriko dira:

- Falta arinak: Falta arin bakoitza kontratuaren adjudikazio prezioaren %1 eta %3 arteko kopuruarekin zehatu ahalko da.
- Falta larriak: Falta larri bakoitza kontratuaren adjudikazio prezioaren %3,01 eta %5 arteko kopuruarekin zehatu ahalko da.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 45. orrialdea, guztira 53

- Falta oso larriak: Oso falta larri bakoitza kontratuaren adjudikazio prezioaren %5,01 eta %10 arteko kopuruarekin zehatu ahalko da.

Honako arrazoi hauek ezingo dira argudiatu dagozkion betebeharrak ez betetzeko kausa justifikatu edo ezinbesteko kausa modura:

a) Eguraldi txarra, salbuespenezkoa edo ondorio katastrofikoduna ez bada.

b) Enpresa adjudikaziodunaren barne lan geldialdiak.

c) Langileen edo hirugarrenen oporrak edo laneko bajak.

Adjudikaziodunak, betetzen ez badu, eragindako kaltea konpondu beharko du; nolanahi ere, gertatutakoak eragin dezakeen erantzukizuna eskatu ahalko da.

Zehapenen kopuruak kobratzeko ordainketetatik kenduko dira edo, bestela, fidantzatik.

Zehapenak ezartzeak ez du salbuesten Udalari kalte-ordaina egokitzea, arau haustearen ondorioz.

16. KONTRATUA AMAITZEA

Oro har, eta SPKLren 209. artikuluarekin bat etorriz, kontratu hau burutzean edo suntsitzean amaituko da.

16.1. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua kontratistak burutu duela ulertuko da zerbitzu guztiak egin direnean agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoarekin bat etorriz, eta zerbitzu horiek Udalaren adostasunez jaso direnean, Udalak inolako kexarik egin gabe.

Zerbitzuak ez badaude Udalak onartzeko moduan edo Udalak kexaren bat badauka kontratistaren ez-betetzeren batengatik, berariaz jaso beharko da eta Udalak kontratistari jarraibideak emango dizkio ez-betetze hori edo antzemandako akatsak zuzentzeko. Hala eta guztiz ere, zerbitzuak ez badira kontratatutakora egokitzen kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak zerbitzu horiek atzera bota ditzake eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita gelditu, zerbitzuaren ez-betetzearen datatik aurrera edo zerbitzua modu desegokian eman denetik aurrera.

16.2. EGINDAKO LANEN JABETZA

Amorebieta-Etxanoko Udalaren jabetzakoak izango dira kontratatutako prestazioak zein egindako lanei dagozkien eskubideak, jabetza industriala eta komertziala, eta ondorioz, edozein momentutan bildu ahal izango ditu osatzen duten agiri edo materialak, aurrekari, datu edo prozedura guztiekin.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak babestutako produktuak garatu eta eskura jartzea xede duten kontratuek hau Udalari lagatzea barne izango dute, agiri honen 12.1, e) klausulan jasotakoaren arabera.

Kontratistak Udalari lanak egiterakoan erabilitako datu, kalkulu, prozesu eta prozedura guztiak euskarri informatikoan emateko betebeharra izango du.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 46. orrialdea, guztira 53

Jabetza intelektuala duten lanen kasuan, jabetza hau Udalari esklusiboki lagatu zaiola ulertuko da, aurretiko eskubideak daudenean izan ezik, azken kasu honetan lagapena esklusibotasunarekin ez egitea izan daitekeelarik.

16.3. BERME ALDIA

Berme aldia Ezaugarrien Taulako D.4) apartatuan jasotakoa izango da, edo hala badagokio, adjudikaziodunak eskainitakoa, kontratuaren izaerarengatik edo berezko ezaugarriengatik beharrezkoa ez denean izan ezik. Hau behar bezala egiaztatu beharko da kontratazio espedientean eta apartatu horretan berariaz jaso.

Epe horren barruan egindako lanetan akatsak daudela antzemango balitz, kontratazio organoak hauek zuzentzeko eskatzeko eskubidea izango du.

Adierazitako berme epea igaro bada eta Udalak ez badu erreparorik jarri, kontratistak egindako prestazioarengatik izan dezakeen erantzukizun orotik libre geldituko da.

16.4. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira agiri honetan eta SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak, SPKLren 213. eta 313. artikuluetan aurreikusitako ondorioekin.

Kontratua adjudikaziodunaren erruz suntsiarazten denean, behin betiko bermea konfiskatu egingo zaio; hala ere, Udalari eragindako kalte eta galerengatik baliteke kalte-ordaina egokitzea, konfiskatutako bermearen kopurua gainditzen duen neurrian.

17. ESKUMENAK ETA JURISDIKZIOA

17.1. KONTRATAZIO ORGANOAREN ESKUMENAK

Kontratazio organoari dagokio kontratu hau interpretatu eta kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko eskumena. Bidenabar, kontratua aldatu ahalko du, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta kontratua bertan behera uztea eta horren ondorioak ebaztea ere erabaki ahalko du, betiere mugen barruan eta SPKLren ondorio eta betekizunei jarraituz.

Kontratazio organoak emango dituen erabakiekin, aldez aurretik aholkularitza juridikoaren txostena jasoz, kontratua interpretatu, aldatu eta bertan behera uzteko eskumenak baliatzerakoan, administrazio bidea amaituko da eta berehala betearaziko dira.

17.2. JURISDIKZIOA

Agiri honen eta hau garatzean emango diren ebazpenen aurka honako errekurtso hauek eman ahalko dira:

- Aukerako berraztertzeko errekurtsoa, kontratazio organoaren aurrean, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, hilabeteko epean, zenbatekoa dela medio errekurtso berezia aurkeztea ez dagokionean.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 47. orrialdea, guztira 53

- Gora jotzeko errekurtsoa, kontratazio organoaren aurrean, Kontratazio Mahaiaren ebazpenei dagokienez, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, hilabeteko epean, zenbatekoa dela medio errekurtso berezia aurkeztea ez dagokionean.

- Errekurtso berezia, hala dagokionean (Ezaugarrien Taulako P atalean aurreikusitakoarekin bat etorriz), kontratazio publikoaren esparruan, Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean hamabost egun balioduneko epean, SPKLren 50. artikuluarekin bat etorriz. Adjudikazioaren aurka eginez gero, egintza hau automatikoki bertan behera utziko litzateke. Adjudikazioa errekurrituko ballitz, egintza hau eten egingo da automatikoki.

- Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa, administrazio bidea agortu ondoren, bi hilabeteko epean. Aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea, aipatutako jurisdikzioa arautu zuen uztailaren 13ko 29/98 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 48. orrialdea, guztira 53

I. ERANSKINA. FORMULEN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN PROPOSAMEN EREDUA

……..jaunak/andreak, ……-(e)koak, egoitza…… kalean duenak, bere izenean edo ……. ordezkatuz, Amorebietako Udalak onartutako administrazio klausula berezien eta preskripzio teknikoen agirien berri izanik, **"……"** (*adierazi Lotea*) deitutako kontratua egikaritzea adjudikatzeko prozedura arautuko dutena, eta, agiri horien edukia erabat onartuz, ……..-(r)en izenean (norberarena edo ordezkatzen duen entitate edo enpresarena, azken kasu horretan ezaugarriak ere zehaztuz), konpromisoa hartzen du aipatutako kontratua lizitazio honetan ezarritako hurrengo irizpideekin bat etorriz egiteko, jarraian adierazitako ordena berean eta emaitzekin:

- **1. Irizpidea - Eskaintza ekonomikoa (45 puntu)**

  Honako prezio honen arabera emateko konpromisoa hartzen dut, eta prezioaren barruan kontzeptu guztiak sartu behar dira, edozein zerga-eremutako zerga, gastu, tasa eta arielak barne, bai eta kontratistaren etekin industriala ere:

Prezio	BEZ (Salbuetsita)	Guztira

- **2. Irizpidea - Prestakuntza (5 puntu).**

  Kontratuari atxikitako langileek zerbitzuaren xede diren arloetan prestakuntza-ikastaroak egiteko konpromisoa hartzen dut, aplikagarri den hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoez gain, urtean gutxienez ….. ordukoak.

Lekua, eguna eta lizitatzailearen sinadura.

DATUEN BABESA - Datuak babesteko arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, lizitatzaileei jakinarazten zaie datuen **tratamenduaren arduraduna** Amorebieta-Etxanoko Udala dela (aurreratzean, arduraduna), egoitza Herriko Plazan duena, 48340; telefono zenbakia: 946300002 eta helbide elektronikoa: idazkaritza@amorebieta.eus. Lizitatzaileek lizitazioan parte hartzerakoan emandako datuak lantzeko zilegitasuna dauka arduradunak, hain zuzen ere **helburu hauetarako**:a) Lizitazioan parte hartzea kudeatzea. Lizitatzaileek parte hartzerakoan modu baliagarrian emandako baimenak ematen dio zilegitasuna tratamendu honi. b) Lizitatzaileen datuak argitaratzea, baita adjudikaziodunenak ere, arduradunak egokitzat jotako kanalen bitartez, bereziki webgunearen bitartez, besteak beste, hornitzaile eta kontratatzaileei buruzko informazioa jasotzen baita bertan. Helburu hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak baimentzen duhornitzaileei buruzko informazioa biltzen baita bertan.

Datu pertsonalak harremanak irauten duen bitartean **landu eta gordeko dira**, eta harremana bukatzen denean arduradunak datuak lantzeko eta/edo gordetzeko zilegitasuna duen artean, indarrean dagoen legediak ezarritako epeei erreparatuz.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 49. orrialdea, guztira 53

Bildutako datu pertsonalei dagokienez, lizitatzaileek datuetara sarbidea izan, datuak zuzendu, ezabatu eta eramangarritasunerako eskubideak baliatzeko aukera izango dute. Bidenabar, inguruabar jakin batzuetan, lizitatzaileek datuen tratamendua mugatu edo horren aurka egiteko eskaera aurkezteko eskubidea ere izango dute; hala eginez gero, arduradunak tratamendua bertan behera utziko du, eta datuak erreklamazioak aurkeztu edo defendatzeko baino ez ditu gordeko. Aipatu eskubideak egikaritzeko Arduradunari idatziz eskari bat aurkeztu beharko zaio, jadanik adierazitako harremanetan jartzeko moduak erabiliz, indarrean dagoen legeriak ezarritako moduan. Era berean, edozein momentutan, erreklamazioa aurkeztu dakioke Arduradunari edo Datuen Babeserako Euskal Agentziari, erakunde horrek honetarako bere webgunean dituen inprimakiak erabiliz: https://www.avpd.euskadi.eus.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 50. orrialdea, guztira 53

II. ERANSKINA: LOTUTAKO ENPRESEN ADIERAZPEN EREDUA

Nik,…….. jaunak/andreak, adin nagusikoa, egoitza……..(e)en dudanak, ……. kalean/plazan, ……..NAN zenbakia dudanak, nire izenean eta nire eskubidez jardunez edo …… ordezkatuz, horren …… naizen aldetik, _____ zerbitzuak kontratatzeko aurkeztutako proposamenari dagokionez, nire erantzukizunpean honako hau adierazten dut:

(Dagokiona adierazi):

☐ Atxikitako zerrendan ageri diren enpresak enpresa eskaintzaileari lotuta daude, eta ez dago aipatutako aginduan ezarritako betekizunak betetzen dituen beste enpresarik.

Izena edo sozietatearen izena…….. IFZ/IFK……..

1.-

2.-

3.-

☐ Enpresa eskaintzaileak ez du lotutako enpresarik.

Lekua, eguna eta lizitatzailearen sinadura.

DATUEN BABESA - Datuak babesteko arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, lizitatzaileei jakinarazten zaie datuen **tratamenduaren arduraduna** Amorebieta-Etxanoko Udala dela (aurreratzean, arduraduna), egoitza Herriko Plazan duena, 48340; telefono zenbakia: 946300002 eta helbide elektronikoa: idazkaritza@amorebieta.eus. Lizitatzaileek lizitazioan parte hartzerakoan emandako datuak lantzeko zilegitasuna dauka arduradunak, hain zuzen ere **helburu hauetarako**:a) Lizitazioan parte hartzea kudeatzea. Lizitatzaileek parte hartzerakoan modu baliagarrian emandako baimenak ematen dio zilegitasuna tratamendu honi. b) Lizitatzaileen datuak argitaratzea, baita adjudikaziodunenak ere, arduradunak egokitzat jotako kanalen bitartez, bereziki webgunearen bitartez, besteak beste, hornitzaile eta kontratatzaileei buruzko informazioa jasotzen baita bertan. Helburu hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak baimentzen duhornitzaileei buruzko informazioa biltzen baita bertan.

Datu pertsonalak harremanak irauten duen bitartean **landu eta gordeko dira**, eta harremana bukatzen denean arduradunak datuak lantzeko eta/edo gordetzeko zilegitasuna duen artean, indarrean dagoen legediak ezarritako epeei erreparatuz.

Bildutako datu pertsonalei dagokienez, lizitatzaileek datuetara sarbidea izan, datuak zuzendu, ezabatu eta eramangarritasunerako eskubideak baliatzeko aukera izango dute. Bidenabar, inguruabar jakin batzuetan, lizitatzaileek datuen tratamendua mugatu edo horren aurka egiteko eskaera aurkezteko eskubidea ere izango dute; hala eginez gero, arduradunak tratamendua bertan behera utziko du, eta datuak erreklamazioak aurkeztu edo defendatzeko baino ez ditu gordeko. Aipatu eskubideak egikaritzeko Arduradunari idatziz eskari bat aurkeztu beharko zaio, jadanik adierazitako harremanetan jartzeko moduak erabiliz, indarrean dagoen legeriak ezarritako moduan. Era berean, edozein momentutan, erreklamazioa aurkeztu dakioke Arduradunari edo Datuen Babeserako Euskal Agentziari, erakunde horrek honetarako bere webgunean dituen inprimakiak erabiliz: https://www.avpd.euskadi.eus.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 51. orrialdea, guztira 53

III. ERANSKINA: SUBROGATU BEHARREKO LANGILEAK

(Gutxi gorabeherako eredua. Gutxienez adina, antzinatasuna, kategoria profesionala eta eskuratutako gainontzeko eskubideak bildu beharko ditu)

ZK.	ADINA	ANTZINATASUNA	KATEGORIA	KONTRATU MOTA	LANALDIA	OHARRAK (eskuratutako eskubideak, …)
1		__/__/__				
....		__/__/__				

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 52. orrialdea, guztira 53

IV. ERANSKINA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO DOKUMENTAZIOAREN ZERRENDA

Zuekin daukagun kontratua aintzat harturik eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Legearen 24. artikuluan eta lege hori garatzen duen 171/2004 EDn ezarrita dagoena beteaz, lantokiaren titular izanik, prebentzio gaietan beharrezkoa den dokumentazioaren zerrenda eta, bete ondoren, itzulita izan beharko duten erregistroak bidaltzen dizkizuegu, kontratatuta dauden lanei ekin aurretik, enpresa jardueren koordinaziorako prozedura betetzeko xedearekin.

ENPRESA KONTRATATUAK EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (Markatu eskatutakoa)
Zerbitzuaren baldintza orokorrak dokumentuaren erregistroa, sinatuta eta zigilatuta.
Lanetan parte hartzen duten langileen zerrenda eta kontratan daudela dioen langileen zinpeko adierazpena (izenpeak).
Jardueraren arriskuen ebaluaketa, jardueren aldiberekotasunak eratortzen dituen inguruabarrek areagotu edo aldaraz ditzaketen arriskuak barne. Esku hartzen du(t)en lanpostu(ar)en Arriskuen Ebaluaketa indarrean dagoelako eta egiteko guztiak eta euron arriskuak aintzat hartzen direlako egiaztagiria aurkeztu beharko da (egindako teknikariak sinatua). Hartu beharreko prebentzio-neurriak eta derrigor erabili beharreko banakako babes-ekipoak bilduko dira ebaluaketa horretara.
Prebentzio-bitartekoak beharrezkoa izanez gero (LAPLren 32 bis artikuluan markaturik dagoen derrigortasunaren arabera), berorien izendapena eta prestakuntza.
Jarduerak bere dituen arriskuetan prebentziozko prestakuntzaren egiaztapena (Prestakuntzaren edukia, iraupena eta data).
Langileei jardueraren arriskuen eta gure enpresak emandako informazioa eman zaielako konfirmazioa.
Medikuak langileei emandako gaitasun-egiaztagiria.
Gizarte Segurantzako alta-dokumentua (RNT, RLC, TA.2 modeloa).
Erantzukizun zibileko asegurua (baldin eta lizitazio prozeduran arinago ekarri ez bada).
Gizarte Segurantzarekiko ordainketen eguneratze-egiaztagiria.
Istripu Mutualitatearekiko elkartze-agiria.
Prebentzio-modalitatea. SPA izatera, egiaztagiria eta indarraldiaren adierazpena.

* Dokumentazio guztiak egon beharko du enpresak sinatua eta zigilatua.

Baliozkotze Kod.: 3AKHJZFEWLC7RGZEASCTT2JSM
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 53. orrialdea, guztira 53